DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

**donostia**sustapena
fomento**sansebastián**

# BAROMETROA 2023

## Donostiako garapen sozioekonomikoari buruzko txostena



# Aurkibidea


0/Hitzaurrea ........ 3 or.

1/ Kohesioa eta enplegua ........ 5 or.

1.1 Biztanleria ........ 5 or.
1.2 Hezkuntza eta prestakuntza ........ 11 or.
1.3 Enplegua ........ 13 or.

2/ Zerbitzu-hiria ........ 19 or.

2.1 Udaleko BPGd-a ........ 19 or.
2.2 Donostiako enpresa-sarea ........ 20 or.
2.3 Udal-sare ekonomikoaren sektore-azterketa ........ 22 or.
2.4 Ezagutza-zerbitzu intentsiboen hiria (EZI) ........ 26 or.
2.5 Jarduera ekintzailea ........ 28 or.

3/ Zientzia eta berrikuntzaren hiria ........ 31 or.

3.1 I+G ........ 31 or.
3.2 Enplegu teknologikoa ........ 37 or.
3.3 Teknologiaren eta I+Gren ezagutza-sarea ........ 39 or.
3.4 Talentua bultzatzea hirian ........ 42 or.

4/ Lurralde-begirada ........ 45 or.

4.1 Profil demografikoa eta sozioekonomikoa auzoetan ........ 45 or
4.2 Jarduera ekonomikoen banaketa auzoetan. ........ 50 or



# 0/ Hitzaurrea

Donostia Sustapenetik 2023ko Hiri Barometroaren edizio berri bat aurkezten dizugu.

Urte honetan, Gipuzkoako hiriburuak hazkunde sendoa izan du, bai empleguari dagokionez (+% 0,5, 2022aren aldean), bai aberastasunaren sorrerari dagokionez, eta urte arteko % 5,5eko hazkundea izan du, udalen BPGd errealean.

Izan ere, 2023an, hiriak biztanleria-bolumenaren maximo historikoa gainditu du (189.093 biztanle), eta azken hamarkadan erregistratutako enplegu-kotarik handienak lortu ditu, 82.649 landunekin. Enplegu-maila hori dela-eta, gure hiriak 27-EB osokoa baino langabezia-tasa txikiagoa du.

Hirian bizi izandako hazkundearen oinarria, neurri handi batean, ezagutza-zerbitzu intentsiboetara (EZI) oso bideratuta dagoen eta dimentsioan aurrera doazen enpresa oso produktiboek osatzen duten produkzio-sarea da.

Enpresa-sare horrek gero eta langile gehiago ditu I+Gn, eta I+Gn aritzen diren pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora hirian: % 6 inguru 2022 eta 2023 artean, eta % 8 arte igotzen da bioteknologiaren esparruan. Hala, 2023an, berrikuntzarako Cotec Fundazioaren arabera, Gipuzkoako hiriburua da estatuko I+Gn intentsitate handiena duen probintzia-hiriburua.

2023ko Hiri Barometroaren edizio berri honetan, udal-errealitate hori deskribatu, kontatu eta alderatuko dugu, lau gai-multzo hauen inguruan egituratuta:

**1. Kohesioa eta enplegua:** lehen kapitulu horrek hiriaren adierazle demografiko nagusiak biltzen ditu, eta agerian uzten ditu pertsonen bizi-kalitatean eta ongizatean izandako aurrerapena, biztanleria migratzailearen hazkunde progresiboa eta gaztetzearen eta ordezkapen demografikoaren erronka.

Jarraian, zifratan jasotzen ditu 2022-2023 ikasturteko ikasle-komunitatea, donostiarren ikasketa-maila handia, eta unibertsitate-eremuko nahiz Lanbide Heziketako ikasle kopuruaren areagotzea.

Kapitulu horrek, azkenik, lan-merkatuaren bilakaera positiboa eta kontratazioaren dinamismoa kokatzen ditu, eta tokiko zifrak beste puntu geografiko batzuekin eta biztanleria-segmentu desberdinen artean alderatzen ditu.

**2. Zerbitzuen hiria:** barometroaren bigarren kapituluak udaleko BPGd-aren aurrerapena kuantifikatzen du termino nominaletan eta errealetan, baita Gipuzkoako hiriburuak 2023an lortutako biztanleko BPGd-aren maila ere.

Ondoren, Donostiako enpresa-parkea ezaugarritzen da, eta ehun ekonomiko horren azterketa sektoriala aurkezten da.

Azterketa sektorialak ezagutza-zerbitzu intentsiboen (EZI), jarduera ekintzailearen eta hiri-ekonomiari lotutako dinamikaren (merkataritza eta ostalaritza) zifrak zentratzen eta xehatzen ditu.

**3. Zientzia eta berrikuntzaren hiria:** hirugarren kapituluak I+Gk azken urteetan izan duen bilakaera aurkezten du, bai inbertsioari dagokionez, bai ekintzailetzari dagokionez, baita arlo horretan bizi izandako empleguaren aurrerapen nabarmena ere.

Kapitulu horrek lehenengo aldiz zifra espezifikoak ematen ditu bioteknologiaren esparruan, bai eta enplegu teknologikoak afiliazioei dagokienez duen pisua ere. Horrez gain, hirugarren kapitulu horrek egungo ezagutza teknologikoaren eta I+Gren ezagutza-sarea deskribatzen du, eta talentu gaztea funtsezko elementutzat hartzen du erreferentziazko berrikuntza-gunearen posizionamenduari eusteko.

**4. Lurralde-begirada:** l2023ko barometroaren edizio honek kapitulu berri bat du, hiria egituratzen duten 18 auzoetako errealitate demografikoa eta sozioekonomikoa kokatu eta zehazteko.

Halaber, kapituluak jarduera ekonomikoa auzoka bereizten du, bai bizitegi-lurzoruan garatutako hirugarren sektoreko jarduera, bai Donostiak gaur egun dituen 9 industrialdeetako jarduera

Taula, grafiko eta hiriko mapetan argitaratutako eta ilustratutako datu guztiak udaleko, EAEko, estatuko eta Europako estatistika ofizialetan oinarritzen dira.

Hori dela eta, Donostia Sustapenetik eskerrak eman nahi dizkiegu, berriz ere, udaleko sail, erakunde eta instituzio desberdinetatik 2023ko Hiri Barometroaren edizio hau egitea ahalbidetzen duten pertsona guztiei, datu eguneratuen eta zehatzen banku zabalari esker.

Hiriaren ezaugarri nagusiak modu sintetikoan donostiarrei, enpresei eta gure hiriaren bilakaeran interesa agertzen duten pertsona guztiei zabaltzeko sortu da dokumentua, eta helburu hori izaten jarraitzen du.

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostiasustapena fomentosansebastián

**2023ko aginte-taula:** Donostia 2023ko adierazle sozioekonomiko nagusiak.

| Eremua | Adierazlea | 2023 | | | 2022-2023 bilakaera |
|---|---|---|---|---|---|
| 1.- Hiri kohesionatu baterantz | 1. Biztanleria (kop.) | 189.093 | 99.657 | 89.436 | +% 0,18 |
| | 2.Biztanleria atzerritarra, biztanleria guztiarekiko (%) | %10,2 | %9,8 | %10,6 | +5,9 e.p. |
| | 3. Zahartze-tasa (%)[1] | %25,7 | %28,9 | %22,5 | +0,4 e.p. |
| | 4. Enplegatutako pertsonak (urteko batez bestekoa, kop.) [2] | 82.649 | 41.781 | 40.868 | +% 0,5 |
| | 5. Langabezia-indizea (%)[3] | % 7,6 | % 8,2 | % 7 | -0,3 e.p. |
| | 6. Jarduera-tasa (%)[4] | % 56,5 | % 51,8 | % 61,8 | -0,1 e.p. |
| | 7. Okupazio-tasa (%)[5] | % 73,9 | % 71,1 | % 76,9 | +1,1 e.p. |
| 2.- Zerbitzuen hiria | 1. BPGd (milioi €) | 8.781 M € | | | +% 5,5 |
| | 2. Biztanleko BPGd | 46.437 € | | | +% 5,3 |
| | 3. Enpresak (kop.) / Establezimenduak (kop.) | 15.606/18.085 | | | %-1,7/%-1,5 |
| | 4. Jarduera ekintzailearen tasa (JET) | % 7,0 | | | +0,4 e.p. |
| | 5. Ezagutza-zerbitzu intentsiboetako enplegua (%, guztiarekiko) | % 35,3 | | | +4,8 e.p. |
| | 6.Merkataritza eta ostalaritzako enplegua (%, guztiarekiko) | % 17,5 | | | +0,3 e.p. |
| 3.- Zientzia eta Berrikuntzaren Hiria | 1. I+Gko inbertsioa (mila eurotan)[6] | 325.462 m. € | | | %+17,4 |
| | 2. I+Gn diharduten langileak [7] | 6.292 | 2.967 | 3.325 | %+5,7 |
| | 3. I+Gn diharduten emakumezko langileen % [8] | % 47,2 | | | +0,7 p.p. |
| | 4. I+Gko jardueretan diharduten enpresak | 124 | | | +6 empresas |
| | 5. Unibertsitateko ikasketak dituen biztanleriaren % | % 27 | %29 | %25 | +0,3 p.p. |

*[1] 65 urtetik gorakoak, guztiarekiko.*
*[2] Biztanleria landuna, urteko batez bestekoa 2023: Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. Eustat.*
*[3] Lanbiden erregistratutako langabezia.*
*[4] Jarduera-tasa = (∑ aktiboak / ∑ 16 urteko eta gehiagoko biztanleria) x100.*
*[5] Okupazio-tasa = (∑ landunak / ∑ 16-64 urteko biztanleak) x100*
*[6] 2022. urteko datuak.*
*[7] 2022. urteko datuak.*
*[8] 2022. urteko datuak.*

# 1.- Kohesioa eta enplegua

Donostia, 2023an, 189.000 biztanle baino gehiago izatera iritsi da, eta hiriko maximo historikoa lortu du.

Donostiarrek itxaropen eta bizi-kalitate handiagoa dute, eta azken hamarkadetan jaiotza-tasa txikia eta biztanle gazteen galera izan dituzte. Hori dela eta, egoera zaila da datozen urteetan ordezkapen demografikoa egiteko. Dena den, egoera horri mesede egiten dio biztanleria migratzailearen etengabeko hazkundeak, –gaur egun Donostiako biztanleriaren % 10,2 da–, eta 2022tik 2023ra bitarteko jaiotza-tasak eta 35 urtetik beherako biztanleriak izan duten gorakada txikiak.

Gizarte eta lan-arloari dagokionez, 2023an Gipuzkoako hiriburuak gehieneko enplegu-maila lortu du (82.649 landun), eta langabezia-tasa txikia –% 5,9ko minimo historikora jaitsi da–. Nolanahi ere, genero-arrakalak bere horretan dirau, eta langabeziak eragin handiagoa du gazteen eta migratzaileen artean.

## 1.1.- Biztanleria

- 2023an, azken bi urteetan izandako hazkunde moderatuak jarraitzen du, 1.306 pertsonako migrazio-saldo positiboak bultzatuta.
- Jaiotza-indizeak (5,7) [9] apur bat gora egin badu ere, eta biztanleria gaztearen (35 urtetik beherakoak) pisuak zertxobait gora egin badu ere, –biztanleria migratzailea gazteagoa delako–, biztanleriaren zahartze nabarmenak erronka handiak jartzen ditu, bai belaunaldien ordezkapenari dagokionez, bai adin handieneko biztanleen artean ongizateari eta bizi-kalitateari eusteari dagokionez.

### 1.1.1.- Analisi demografiko globala

Donostiako biztanleriak 189.093 egoiliar ditu 2023an (99.657 emakume eta 89.436 gizon). Gipuzkoako hiriburuak, 189.000 biztanle gainditzea lortu arren, biztanleria-hazkunde oso moderatua du, urte arteko % 0,2koa soilik, eta % 0,7koa, 2022ko datuekin alderatuz gero.




Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen udal-errolda, 2023ko abenduaren 31.

2023an, Gipuzkoako biztanleriaren laurdena baino zertxobait gehiago eta Donostialdeko biztanleriaren % 55,3 bildu du hiriburuak (330.342 biztanle eskualdean)[10].

Donostia hiri ertaina da, eta biztanleriari dagokionez nolabaiteko geldialdia izaten ari da. Fenomeno horixe gertatzen da EAEko beste bi hiriburuetan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan, % 0,8tik beherako hazkunde-tasak izan baitituzte.

Biztanleriaren gorakada txikia biztanleria atzerritarraren bilakaera positiboari esker gertatu da; izan ere, populazio-segmentu hori erritmo nabarmenean hazten ari zen 2018-2019 pandemiaren aurreko aldian (% 9), eta 2021etik aurrera bilakaera positiboari heldu dio berriro ere: 2021-2022 bitartean % 12ko hazkundea izan zuen, eta 2022-2023 aldian % 6koa.

**Biztanleriaren bilakaera Donostia 2015-2023**




**Urte arteko bilakaera (%)**

| Aldia | Biztanleria osoa | Biztanleria atzerritarra[11] |
|---|---|---|
| 2015-2016 | % 0,18 | % 1,7 |
| 2016-2017 | % 0,16 | % 5,4 |
| 2017-2018 | % 0,40 | % 9,0 |
| 2018-2019 | % 0,45 | % 9,4 |
| 2019-2020 | -% 0,05 | % 1,9 |
| 2020-2021 | -% 0,13 | % 1,7 |
| 2021-2022 | % 0,48 | % 12,2 |
| **2022-2023** | **% 0,19** | **% 5,9** |

Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen udal-errolda, 2023ko abenduaren 31.

*[9] Jaiotza-tasa = (Bizirik dauden jaioak / Biztanleria osoa) x 1000.*
*[10] Iturria: Biztanleen udal estatistika (BUE), 2023ko abenduaren 31.*
*[11] Espainiar nazionalitatea duten atzerritar jatorriko biztanleak.*

### Hazkunde begetatiboa eta migrazio-saldoa

Hiriaren bilakaera demografikoak, beraz, biztanleriaren hazkundearen zantzuak ditu, migrazio-saldo mesedegarriak eraginda; kopuru absolutuetan, guztira 1.306 pertsonatan kuantifikatu da 2023an.

Hala ere, Donostiako hazkunde naturala edo begetatiboa[12] negatiboa da (-941, 2023. urtean); errealitate hori finkatu egin da azken lau urteetan, 900 pertsonatik gorako urteko saldo begetatibo negatiboekin.

## Saldo begetatiboaren, migrazio-saldoaren eta biztanleriaren hazkundearen bilakaera Donostian. 2000-2023




| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hazkunde begetatiboa | -100 | -241 | -214 | -151 | -148 | -222 | -197 | -246 | -232 | -306 | -251 | -260 | -307 | -435 | -412 | -517 | -544 | -665 | -684 | -649 | -980 | -938 | -1154 | -941 |
| Migrazio-saldoa | 991 | 484 | 667 | 1.125 | 350 | 650 | 35 | 1.444 | 1.345 | 460 | 830 | 621 | 425 | 71 | 377 | 494 | 883 | 957 | 1.439 | 1.493 | 819 | 655 | 2.091 | 1.306 |
| Biztanleriaren hazkundea | 891 | 243 | 453 | 974 | 202 | 428 | -162 | 1.198 | 1.113 | 154 | 579 | 361 | 118 | -364 | -35 | -23 | 339 | 292 | 755 | 844 | -161 | -283 | 937 | 365 |

Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen udal-errolda, abenduaren 31.

### Biztanleria-hazkundea auzoka

Auzoen araberako bilakaera demografikoak ere aldeak ditu. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Amara Berri auzoak (-% 0,9) eta Gros auzoak (-% 0,7) duten biztanle-galera txikia. Amara Berriren kasuan, beherakada hori ez dator bat aurreko aldian izandako % 5eko bilakaera positiboarekin, eta, Grosen kasuan, 2021etik 2022ra izandako % 4,1eko biztanleria-uzkurdura arintzen du.

Positiboki, Erdialdea (+% 0,5), Altza (+% 0,7) eta Egia (+% 0,3) auzoek biztanleria egonkorra dute, eta Intxaurrondok (+%1,1) eta Aietek (+%1,3) urtetik urterako % 1etik gorako hazkundea izan dute.

[12] *Jaiotzen eta heriotzen arteko aldea.*



Donostia: Donostia San Sebastián Turismoa

**2022-2023ko bilakaera eta auzoen araberako biztanleriaren banaketa 2023**
(Rankinga auzoen arabera, biztanleria handienetik txikienera ordenatuta)




Biztanleriaren hazkundea   Biztanleriaren galera

| Auzoa | Biztanle-kopurua | Bilakaera 2022-2023 |
|---|---|---|
| **1.- Amara Berri** | 30.192 bizt. | -% 0,9 |
| **2.- Centro** | 22.264 bizt. | % 0,5 |
| **3.- Alza** | 20.484 bizt. | % 0,7 |
| **4.- Gros** | 17.943 bizt. | -% 0,7 |
| **5.- Intxaurrondo** | 15.863 bizt. | % 1,1 |
| **6.- Aiete** | 14.800 bizt. | % 1,3 |
| **7.- Egia** | 14.650 bizt. | % 0,3 |
| **8.- Antiguo-Ondarreta** | 14.265 bizt. | -% 0,2 |
| **9.- Ibaeta** | 10.061 bizt. | -% 0,2 |
| **10.- Miracruz-Bidebieta** | 8.857 bizt. | -% 0,1 |
| **11.- Loiola-Txomin** | 6.287 bizt. | % 0,2 |
| **12.- Ategorrieta-Ulia** | 4.062 bizt. | -% 0,8 |
| **13.- Añorga** | 2.753 bizt. | % 4,5 |
| **14.- Martutene** | 2.727 bizt. | % 1,0 |
| **15.- Miramon-Zorroaga** | 2.431 bizt. | -% 0,7 |
| **16.- Igeldo** | 1.109 bizt. | % 3,8 |
| **17.- Zubieta** | 314 bizt. | % 5,4 |
| **18.- Landarbaso** | 20 bizt. | % 11,1 |
| **GUZTIRA** | **189.093 bizt.** | **% 0,2** |

2023an erregistratutako sarreren eta irteeren arteko balantzearen haritik, hiriko 18 auzoen artean 11k saldo positiboa dute; auzo horien artean, berriz, 100 biztanletik gorako saldo positiboak dituzten 5 auzo nabarmentzen dira (Aiete, Intxaurrondo, Altza, Erdialdea eta Añorga).

Bestalde, barne-biztanleria galdu duten 7 auzoen artean, Amara Berri (-283) eta Gros (-126) auzoak nabarmentzen dira galdutako biztanleria-bolumenari dagokionez.

Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen udal-errolda, 2022ko eta 2023ko abenduaren 31.

### 1.1.2.-Biztanleriaren zahartzea

Zahartzea bizkortu egin da hirian: Donostiako biztanleriaren % 26 inguruk 65 urte baino gehiago ditu (ratioa honako hauen batez bestekoa baino handiagoa da: EAEkoa, % 23,5; Gipuzkoakoa, % 23,3[13] eta estatukoa %20,1[14]), eta "baby boom" belaunaldia erretiro-adinera iristen hasi da.

Gainera, Donostiako biztanleria zahartzen ari da eta batez besteko adina 47,2 urteraino igo da (48 urte emakumeen artean eta 45 gizonen artean), hau da, 0,7 urte gehiago 12 hilabetetan bakarrik. Horrez gain, 2023an 65 urtetik gorako 2,1 pertsona erregistratu dira 15 urtetik beherako pertsona bakoitzeko.

Errealitate horri bizi-itxaropen handia (83,4 urte) lotzen zaio, eta bizi-kalitateari, ongizateari eta osasunari dagokienez aurrera doan gizartearen isla da.

Era berean, azken bi hamarkadetan jaiotza-tasak minimo historikoetan kokatzen diren testuinguruan (5,7 jaiotza 1.000 biztanleko 2023an), ordezkapen demografikoa da heldu beharreko erronka nagusietako bat.

Indize hori, gainera, EAEn (6,2)[15], Gipuzkoan (6,3) eta estatuan (6,9) [16] 1.000 biztanleko erregistratutako 6 jaiotzen batez bestekoaren azpitik dago, eta urrun EB-27n (8,7) , Irlandan (10,5) eta Suedian (10) ezarritakoetatik, jaiotze indize mesedegarriagoak baitituzte.

Positiboki, 2023an Donostiako jaiotza-indizeak gora egin du apur bat, 2022. urtearekin alderatuta (5,58).

**Zahartze-tasaren[18] bilakaera Donostian 2000-2023**




**Jaiotza-indizearen[19] bilakaera Donostian 2000-2023**




Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen udal-errolda, abenduaren 31.

[13] *Iturria: Biztanleen udal estatistika (BUE), Eustat, 2023.*
[14] *Iturria: EIN, Errolda jarraituaren estatistika, 2023.*
[15] *Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika. 2022.*
[16] *Iturria: EIN. Jaiotza-adierazleak. 2022.*
[17] *Iturria: Eurostat. 2022.*
[18] *65 urtetik gorako biztanleen proportzioa biztanleria osoarekiko.*
[19] *Jaiotza kopurua 1.000 biztanleko, urtebetean.*

### 1.1.3.- Biztanleria gaztea

**35 urtetik beherako biztanleriak gorakada txikia izan du, hiriaren joera historikoa gazteek pisua galtzea denean.**

35 urtetik beherako biztanleria Donostiako biztanleriaren % 32 da 2023an, eta proportzio hori duela hamarkada bat biztanleria gazteak (gazteek eta haurrek) zuen pisua baino 7 puntu txikiagoa da. Positiboki, 2022tik 2023ra urte arteko % 0,7ko hazkundea izan da.

**Biztanleria gaztearen bilakaera Donostian (35 urtetik beherakoak) 2001, 2022 eta 2023**




Iturriak: Donostiako Udala, Biztanleen udal-errolda, 2021, 2022 eta 2023ko abenduaren 31.



Argazkia: Donostia San Sebastián Turismoa

**Gazteen arteko migrazio-saldoa ia orekatua da, baina “negatiboa” Gipuzkoako lurralde-eremuaren eta EB-27ren aldean.**

Gazteen arteko mugikortasunaren aldetik, 2023an ikuspegi orokorra orekatua izan zen (-9), udal-erroldaren bidez erregistratutako hiriko sarrerei (3.187) eta irteerei (3.196) dagokienez[20].

Nolanahi ere, aztertutako lurralde-eremuaren arabera alde handiak daude.
Horrela, alde batetik, nazioartean, alegia, EB-27tik kanpo, estatuan eta EAErekin alderatuta gazteen artean gertatzen diren sarrera-irteeren arteko balantzea positiboa da (+108, +104 eta +34, hurrenez hurren).

Dena den, Gipuzkoako lurralde-eremuari erreparatuta, Donostiak biztanleria gaztea galdu du; hala, 2023an 245 gazteko saldo garbi negatiboa izan du, eta, guztira, Donostiako 1.662 gazte lurraldeko beste udalerri batzuetara joan dira bizitzera[24]. Gainera, gehiago dira EB-27ko herrialdeetara emigratu duten Donostiako gazteak, 2023an hirira iritsi diren Europako gazteak baino; horrela, 10 pertsonako saldo negatiboa dago lurralde-eremu horretan.

**Migrazio-saldoa[21] Donostian. Biztanleria osoa vs. Biztanleria gaztea. 2023**

Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen udal-errolda, 2023ko abenduaren 31.

| Migrazio-saldoak | Gazteen balantzea |
|---|---|
| GLOBALA | -9 |
| Gipuzkoa | -245 |
| EAEko gainerako lur[22] | +34 |
| Estatu gainerako lur[23] | +104 |
| EB-27 | -10 |
| Atzerriko gainerako her. | +108 |

### 1.1.4.-Biztanleria migratzailea

**Gaztetzea eta biztanleria-aniztasuna.**

Hiriak duen migrazio-saldo mesedegarriak, gizarte gero eta pluralagoa garatzeaz gain, biztanleria gazteagoa dakar. Horrela, donostiarren batez besteko adina 2023an 47,2 urtekoa da; ostera, migrazio-segmentuari lotutako adina 34,8 urtekoa da.

Izan ere, Donostiako biztanleria migratzailearen barruan 30 eta 34 urte bitarteko adin-taldearen ordezkaritza (% 14 gizonen artean eta % 15 emakumeen artean) ehuneko 8-10 puntu handiagoa da hirian jaiotako gazteen artean adin-tarte horrek duen ordezkaritza baino (% 6 gizonen artean eta % 5 emakumeen artean).

Orduan, errealitate horrek atzerritar jatorriko donostiarren arteko biztanleria-piramide orekatuagoa marrazten du belaunaldien arteko erreleboari dagokionez, eta hiri osoa gaztetzen laguntzen du.

**Biztanleria-piramidea. Donostian jaiotako biztanleak vs. Atzerritar jatorriko biztanleak (%) 2023**




Donostian jaiotako gizonak
Atzerritar jatorriko gizonak
Donostian jaiotako emakumeak
Atzerritar jatorriko emakumeak

Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen udal-errolda, 2023ko abenduaren 31.

*[20] Okerreko inskripzioari”, “iraungitze-bajari” eta “ez-egiteagatiko altari” lotutako gertakariak ez dira erroldan kontabilizatzen*
*[21] Hirian, Gipuzkoatik, EAEtik, Espainiako gainerako lurraldeetatik eta beste herrialde batzuetatik erregistratutako urteko sarreren guztizkoaren eta Gipuzkoara, EAEra, Espainiako gainerako lurraldeetara eta beste herrialde batzuetara bideratutako urteko irteeren guztizkoaren arteko aldea 35 urtetik beherako biztanleriaren artean.*
*[22] EAEko gainerako lurraldeak, Gipuzkoa zenbatu gabe*
*[23] Estatuko gainerako lurraldeak, EAE zenbatu gabe*
*[24] Gipuzkoako gainerako udalerrietatik 1.417 gazte iritsi dira hiribura.*

Oro har, 2023an, 135 herrialdetatik etorritako 19.316 atzerritar daude erroldatuta (9.805 emakume eta 9.511 gizon), hots, Donostiako biztanleria osoaren % 10,2 (% 9,7 zen 2022an).

Proportzio hori bat dator migrazio-segmentuak Gipuzkoan eta EAEn duen pisuarekin, eta ehuneko 0,5 puntu egin du gora urtebetean.

Jatorriz Latinoamerikako herrialdeetakoa den biztanleria nabarmentzen da, hau da, hiriko atzerritarren % 60 inguru dira; herrialdeka eta zehazki, honako hauek: Honduras lehen postuan (% 11,3), gero Kolonbia (% 10) eta Nikaragua (% 9).

**Atzerritarren jatorrizko herrialdeak Donostian 2023 (%)**




Iturria: Donostiako Udala, Biztanleen udal-errolda, 2023ko abenduaren 31.



## 1.2.- Hezkuntza eta prestakuntza

**1.2.1.- Ikasleen komunitatea** Hiriko ikasleen komunitatearen harira, 2023-2024 ikasturtean, 49.393 pertsona zenbatu dira, alegia, donostiarren % 26,1ek osatzen du talde hori. Hala bada, % 7,6 murriztu da 2022-2023 ikasturtearekin alderatuta[25].

Heziketa zikloaren arabera, honako ikasle-talde hauek bereiz daitezke:

- **2023-2024 ikasturtean 24.325 ikasle daude haur**, lehen eta bigarren hezkuntzan, hots, hiriko ikasleen ia erdiak (% 49,3).
- **Batxilergoko 3.756 ikasle**, hau da, 2023-2024 ikasturteko ikasleen % 7,6.
- **6.407 gazte ari dira lanbide-heziketako graduak egiten** (guztizkoaren % 13).
- **14.341 ikasle daude unibertsitateko graduetan**, alegia, ikasleen % 29.
- Eta **unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetan matrikulatutako 564 heldu**; hiriko ikasleen % 1,1.

**2023-2024 ikasturtean Donostian matrikulatutako ikasleak**

| Maila akademikoa | Ikasle-kopurua | % pisu erlatiboa |
|---|---|---|
| Haur, lehen eta bigarren hezkuntza* | 24.325 | % 49,3 |
| Batxilergoa | 3.756 | % 7,6 |
| Lanbide-heziketa** | 6.407 | % 13,0 |
| Unibertsitateko prestakuntza*** | 14.341 | % 29,0 |
| Helduen hezkuntza | 564 | % 1,1 |
| **Guztira** | **49.393** | **% 100,0** |

* Barne hartzen du hezkuntza berezia.
** Barne hartzen ditu erdi eta goi mailako. lanbide-heziketa, zereginen ikasketa eta lanbide-heziketako espezializazio-ikastaroak. 2022-2023 ikasturtea
*** Unibertsitate estatistika. Eustat.

Iturria: Eskola-jardueraren estatistika. Eustat. 2023/2024ko aurrerapena

[25] *2022-2023 ikasturtearekin alderatuta*

### 1.2.2.- Unibertsitateko ikasketak

**Unibertsitateko ikasketak dituen biztanleria donostiarren % 27 da, eta honek enplegagarritasun-zifrak hobetu ditu**

Hiriak hezkuntza-maila altua eta goranzkoa du; hala, 2023an donostiarren % 27k (% 29 emakumeen artean eta % 25 gizonen artean) unibertsitateko ikasketak ditu (2000. urtean baino ehuneko 9,7 puntu gehiago).

Bestalde, 2022-2023 ikasturtean 14.341 ikasle ari dira unibertsitateko ikasketak egiten (7.903 emakume eta 6.438 gizon), hau da, aurreko 2021-2022 ikasturtean baino % 2,6 gehiago.

Unibertsitateko biztanleriak hirian duen pisu handiak eta unibertsitateko ikasleen hazkundeak biztanleriaren batez besteko kualifikazioa handitzea eta egungo eta etorkizuneko enplegagarritasuna hobetzea eragiten du.

Enplegagarritasun hori dela eta, unibertsitateko ikasleen laneratzeari buruzko estatistikatik ondorioztatzen den bezala, EAEko laneratze-tasa % 84koa da Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) ikasleen artean[26] , eta % 91ra artekoa karrera tekniko eta sanitarioetan (aurreko ikasturtean baino ehuneko puntu 1 gehiago).

**Unibertsitateko titulua duten donostiarren proportzioaren bilakaera 2000-2023**




Iturria: Donostiako Udala. Biztanleen udal-errolda. Abenduaren 31.

### 1.2.3.- Erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketa

**Erdi- eta goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleen kopuruen hazkundea**

2023-2024 ikasturtean, erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketako ikasleak 5.703 dira guztira, hots, urte arteko % 5,3ko hazkundea egon da 2022-2023 ikasturtearekin alderatuta.

Halaber, talde horren barruan dauden ikasleen artean, % 35ek erdi-mailako lanbide-heziketako kurtsoetan eman dute izena eta % 65ek goi-mailako kurtsoetan.

EAEko lanbide-heziketaren kasuan enplegagarritasuna nabarmen hazi da; urte bakar batean ehuneko 9 puntu batu ditu, eta, horrela, 2022an enplegagarritasun-tasa % 54koa izan da. Proportzio hori % 88ra igotzen da ikasten jarraitzen duten pertsonak zenbatuz gero. LH ikasketak amaitu ondoren langabezian dagoen kolektiboa % 11koa da[27].

Lanbide Heziketaren aldeko testuinguru honetan, EAEko ikasleen kopurua % 5,3 igo da 2023 ikasturtean, eta % 9,1 lehen mailan matrikulatutako ikasleen artean. Lanbide-heziketan, 2023an, ikasleen % 40 baino zertxobait gehiagok, erdi-mailako zein goi-mailako zikloetakoek, modalitate dualean egiten zuten prestakuntza, alegia, ikastetxeetako prestakuntza eta enpresetan jasotzen dena konbinatuta..

Gainera, aipatzekoa da 2023-2024 ikasturtean goi mailako LHren eta unibertsitatearen arteko lotura indartu dela, EAEn, pasabideen programaren bidez bultzatua. Programa horrek irakasgaien % 25 baliozkotzen ditu, eta bi bideen (LH eta unibertsitatea) “osagarritasuna” bultzatzen du, ikasleen irteera-profila indartzeko, enplegagarritasuna hobetzeko eta enpresen lehiakortasuna indartzeko.

[26] *Ikasketak 2019ko ekainean amaitzen dituzten unibertsitateko graduetako promozioa; Euskal Unibertsitate Sisteman ikasketak amaitu dituzten pertsonen laneratzeari buruzko azterlanaren emaitza nagusiak. Lan-bizitzan sartzeari buruzko azterlana, 2022-IV.*
[27] *LHren laneratzeari buruzko azterlana. 2021eko promozioa. Lan-egoera 2022an, IV. hiruhilekoan.*



## 1.3.- Enplegua

• Eustat-Euskal Estatistika Erakundearen zifrei erreparatuz (Biztanleria jardueraren arabera estatistika-eragiketa), 2023an Donostiak 82.649 landun ditu batez beste[28].

• Gehieneko enplegu-maila, azken hamarkadan erregistratutako gutxieneko langabezia-tasa historikoa, %5,9koa, lortzea dakarrena[29].

• 2023an, biztanleria aktiboak bere horretan jarraitu du, eta 88.373 pertsona zenbatu dira; hala ere, gaur egun, oraindik, genero-arrakala handia dago emakumeen (% 51,8) eta gizonen (% 61,8) jarduera-tasaren artean.

• Lanbideren datuen arabera, agerikoa da eta oraindik ere hala jarraitzen du, langabeziak eragin konparatibo handiagoa duela emakumeen kolektiboan, gazteen artean, migratzaileen artean eta kualifikazio txikiagoko biztanleen artean.

• Nolanahi ere, 2023an kontratatutako pertsonen artean (34.721 pertsona) emakumeak (% 56,4), 35 urtetik beherako gazteak (% 55,5) eta kolektibo migratzailea (% 42,2) nabarmentzen dira.

### 1.3.1.- Biztanleria landuna eta aktiboa

**Hiriak enplegu-maila maximoa lortu du; 2017an markatutako "sabaia" gainditzen du, 2008ko atzeraldi globalaren aurreko mailak gainditzea ere lortu du, eta 2021-2023 hirurtekoan markatutako bide positiboari eusten dio.**

2023an, Donostiako biztanleria landuna azken hamarkadako kopururik handienera iritsi da: 82.649 pertsona landun (41.781 gizon eta 40.868 emakume), eta horietatik % 80 zerbitzuen sektorearekin lotzen da.

Enplegu-mailak eutsi egin dio joan den 2022ko bultzada handiari (+% 3,4), urte arteko aurrerapen moderatuxeagoaren bidez (% 0,5ekoa; emakumeen kolektiboan % 0,9ra iritsi da).

**Biztanleria landunaren bilakaera Donostia 2015-2023***




*Urteko batez bestekoa

Iturria: Biztanleria jardueraren arabera. Eustat.

**Biztanleria landunaren bilakaera 2021-2023 Donostia, EAE eta Gipuzkoa**




[28] *Dokumentu honetan, biztanleria landuna eta okupazio-tasa Eustaten 2023ko "Biztanleria jardueraren arabera" estatistikaren urteko batez bestekoarekin lotzen da*

[29] *Argitalpen honetan aurkeztutako langabezia-tasa Eustaten "Biztanleria jardueraren arabera" estatistikaren IV. hiruhilekoko datuarekin lotzen da. 2023*

Azken hirurtekoan, eta konparazio gisa, hiriko enplegua EAE osokoaren erritmo berean hazi da (+% 4 metatua 2021etik) eta Gipuzkoako batez bestekoa baino zertxobait gorago dago.

Biztanleria aktiboari dagokionez, Donostiak 88.373 pertsona aktibo ditu guztira[30] (44.648 gizon eta 43.725 emakume), eta jarduera-tasa (% 56,5) aurreko urtekoaren, EAEkoaren (% 56,2) eta EB-27koaren (% 56[31]) antzekoa da.

Nabarmentzekoa da atzerritarren gorakada, 2023an biztanleria landunaren guztizkoaren % 11,7 baita, eta biztanleria aktiboaren guztizkoaren % 13,6.

### Biztanleria langabea Donostian 2023

Guztira: **6.626** pertsona **%7,9** langabezia-indizea

Generoaren arabera: % 55,4 | % 44,6

Adin tarteen arabera (%)




Ikasketa mailaren arabera (%)




Iturria: Lanbide. Erregistratutako langabezia. 2023ko abendua.

## 1.3.2.- Biztanleria langabetua

### Langabeen kopuruak ere behera egiten jarraitzen du

2023ko abenduan, Gipuzkoako hiriburuak 6.626 langabe erregistratu zituen Lanbideren bitartez (3.674 emakume eta 2.952 gizon). Horrek esan nahi du enplegurik gabeko pertsonen bolumenaren urte arteko murrizketa % 5,1ekoa izan dela, eta % 5,5ekoa emakumeen kasuan. Nolanahi ere, emakumezko langabeen kolektiboaren pisu handiagoak (guztizkoaren % 55,4) errealitate izaten jarraitzen du tokiko lan-merkatuan.

Adinaren arabera, langabeen % 59k 45 urte baino gehiago ditu, eta % 35ek 55 urte baino gehiago. Errealitate hori 45 urtetik gorako adin-segmentuaren biztanleriak duen pisuarekin dago lotuta (Donostiako biztanleriaren % 58,4[32]), baina agerian uzten du kolektibo horrek laneratzeko zailtasun handiagoak dituela, prestakuntza-maila txikiagoak dituztelako edo adinkeria dela-eta.

Gazteen artean[33] aldiz, biztanle gutxiago daude (% 17,4), eta Lanbiden 2023an erregistratutako langabeen % 23 dira. Positiboan, emakume gazte langabeen proportzioa txikiagoa da (% 43,5), eta kolektibo horrek, gainera, gizonek baino prestakuntza-maila handiagoa du (unibertsitateko titulazioa duten emakumeen % 28,6 vs. gizonen % 25,3[34]). Hala ere, errealitate hori desorekatu egiten da 35-44 urte bitarteko helduen artean, segmentu horretan emakume langabeak ia % 59 baitira.

Langabeziak eragin handiagoa du hezkuntza-maila apalagoa duen biztanlerian; izan ere, langabeen % 45,6k ez du ia derrigorrezko hezkuntzarik[35], eta eragin esanguratsua da, kontuan hartzen bada kolektibo hori Donostiako biztanleria osoaren % 21 baino gutxiago dela[36].

Langabeziaren murrizketarekin bat etorriz, Lanbideren langabezia-indizea[37], (% 7,6 da 2023an) azken sei urteetan erregistratutako minimo historikora jaitsi da, baina oraindik ere ehuneko 1,3 puntuko genero-arrakala dago, eta langabeziak eragin handiagoa du emakumeen kolektiboan (% 8,2).

*[30] Dokumentu honetan, biztanleria aktiboa eta jarduera-tasa Eustaten 2023ko "Biztanleria jardueraren arabera" estatistikaren urteko batez bestekoarekin lotzen da.*
*[31] Iturria: Eurostat*
*[32] Iturria: Biztanleen udal estatistika 2023. Eustat.*
*[33] 35 urtetik beherakoak eta 18 urtetik gorakoak.*
*[34] Iturria: Udal-errolda. 2023ko abenduaren 31.*
*[35] Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH).*
*[36] Iturria: Udal-errolda. 2023ko abenduaren 31.*
*[37] Langabezia-indizea Lanbideren bulegoetan izena emanda dauden pertsonekin lotzen da, enplegubilaketa aktiboa egin edo ez.*

### Langabezia-indizearen bilakaera Donostian 2017-20223




Generoaren arabera: %8,2 | %7,0

**Genero-arrakala: 1.3 e.p**

Iturria: Lanbide .

### Langabezia-tasa minimo historikoetan dago hirian, baita EB-27 osokoaren azpitik ere

Konparazio geografikoak egiteko (EAE, estatua eta EB), Eustatek argitaratutako langabezia-tasa hartzen da erreferentziatzat[38], Lanbiden erregistratutako langabezia-indizearen ordez.

Hala, Donostiako langabezia-tasa (% 5,9), Gipuzkoakoaren antzera (% 5,4), minimo historikoetan dago, eta EAEko beste bi hiriburuetako tasak baino ehuneko 3 puntu beherago, baita EAEkoa baino beherago ere.

Azkenik, Gipuzkoako hiriburuak EB-27ko batez bestekoa (% 6,4) baino langabezia-tasa hobea du.

### 2023ko langabezia-tasen alderaketa







Iturria: Biztanleria jardueraren arabera. Eustat, 2023ko IV. hiruhilekoa.

** Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta (BAI), EIN, 2023ko IV. hiruhilekoa*
*** Iturria: Eurostat, 2023ko abendua*

[38] *Eustaten "Biztanleria jardueraren arabera" estatistika-eragiketaren bidez argitaratutako langabezia-tasan, estatistika ofizialetan bezala (EIN, Eurostat), langabe gisa zenbatzen dira lan bila aktiboki ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan bila aritu direnak.*



### 1.3.3.- Kontratazioaren bilakaera

**Kontratazioa dinamikoa da, 2022ko bultzadari eusten dio, eta kontratazio mugagabearen pisua pixka bat handitu dela erakusten du (+1,4 e.p.).**

2023an, Donostiako enpresa-sarearen bidez, 34.721 pertsona kontratatu dira; zenbateko esanguratsu hori 2022koaren antzekoa da[39], Hala, bada, guztira 93.450 kontratu sinatu dira.

Dinamismo hori, neurri handi batean, emakumeen (% 56,4), 35 urtetik beherako gazteen (% 55,5) eta migratzaileen (% 42,2) kontratazioarekin lotzen da, eta, era berean, aipatzekoa da 55 urtetik gorako 3.128 pertsona kontratatu direla 2023an, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituen segmentua.

2022. urtearekin alderatuta, sinatutako kontratu mugagabeen pisuak gora egin du (ehuneko 1,4 puntu gehiago). Hala, 2023an kontratu mugagabeak dituzten pertsonen kopurua (% 50,3 guztira, eta % 45,6ra jaitsi da 55 urtetik gorakoen kasuan) aldi baterako kontratuak dituztenak baino handiagoa da (% 49,7). Gainera, lanaldi osoko kontratua duten pertsonen proportzioa % 61 ingurukoa da, baina % 52,7ra jaisten da emakumeen artean.

**Kontratazioaren dinamismoa Donostian 2023 (Pertsona kopurua eta kontratu sinatuak)**




Iturria: 2023. urtean sinatutako kontratuak. Urteko metatua. Lanbide. 2023ko abenduaren 31.

**Ostalaritza eta merkataritza, hiriko enpleguaren eragile nagusietako bi**

Lanbidek emandako datuen arabera, 2023an, Donostian, 10.789 kontratu sinatu ziren merkataritza-sektorean[40] eta 17.553 ostalaritza-sektorean.

Donostiako ekonomiaren barruan, bi sektore horiek dinamismoa eta garrantzia oso nabarmena dute enpleguan; horrela, horietan erregistratutako kontratuak, batera, Donostiako ekoizpen-sare osoan sinatutako hiru kontratutik bat dira.

Dena den, 2023an murriztu egin da Donostiako merkataritzan (-% 16) eta ostalaritzan (-% 15) sinatutako kontratuen kopurua. Enpleguaren portaera hori lotuta dago 2023an Donostian 2022an baino aldi baterako kontratu gutxiago sinatu izanarekin.

Horrela, enplegu mugagabearen sorrerari erreparatzen badiogu, ikus daiteke sinatutako kontratu mugagabeen kopuruak gora egin duela, bai Donostiako merkataritzan, bai ostalaritzan, 2023an, 2022aren aldean. Hala, merkataritza-sektorean 3.471 kontratu mugagabe egin dira 2023an, eta ostalaritzan 7.654 kontratu mugagabe, hots, 2022an baino % 2,1 eta % 1,4 gehiago, hurrenez hurren.

Horrela, bi sektoreek asko laguntzen dute hirian enplegu egonkorra sortzen; Donostian 2023an erregistratutako kontratu mugagabe guztien % 43 inguru Donostiako merkataritza eta ostalaritza-sektorean sortu dira.

[39] *35.610 pertsona.*

[40] *Handizkako eta txikizkako establezimenduak hartzen dira barne, bai eta ibilgailu motordunak konpontzeko establezimenduak ere.*

## Donostiako merkataritza eta ostalaritza-sektorean 2023an egindako kontratu kopurua, tipologiaren arabera




Iturria: 2023. urtean sinatutako kontratuak. Urteko metatua. Lanbide. 2023ko abenduaren 31.
*Merkataritza, konponketa eta ibilgailu motordunak barne.

## Kontratu mugagabeen kopuruaren bilakaera 2022-2023an Donostiako merkataritzan eta ostalaritzan




Iturria: 2023. urtean sinatutako kontratuak. Urteko metatua. Lanbide.
*Merkataritza, konponketa eta ibilgailu motordunak barne.





Argazkia: Donostia San Sebastián Turismoa

# 2.- Zerbitzu-hiria

Donostiak ekonomia aldetik hazten jarraitzen du 2023an. BPGd-aren urte arteko hazkundea % 5,5ekoa izan da, eta biztanleko BPGd-a Gipuzkoako eta EAEko batez bestekoa baino 46.437 euro handiagoa izan da.

Hazkunde hori hirugarren sektoreko enpresa-ehunaren gainean dago oinarrituta –% 6 hazi da BPGd-ari dagokionez–, eta azpimarratzekoa da ezagutza-zerbitzu intentsiboek (aurrerantzean, EZI) hartu duten protagonismoa –2023an hirian sortutako BPGd-aren erdia osatzen dute–.

## 2.1.- Udaleko BPGd-a

- Donostiako ehun sozioekonomikoak 8.781 milioi euroko udaleko BPGd-a sortu du 2023an (+% 5,5 2022ko ekitaldiarekin alderatuta).
- Biztanleko BPGd-ak ere gora egin du (urtetik urterako +% 5,3), eta 2023an biztanleko 46.437 €-ko batez besteko mailan kokatu da.

### Hiriak BPGd-aren hazkunde nominala finkatu du

Gipuzkoako hiriburuak 8.781 milioi euroko BPGd-a sortu du 2023an (hirian ekoitzitako ondasun eta zerbitzu guztien balio nominala), Gipuzkoan urte berean sortutako BPGd-aren % 29 baino zertxobait gehiago.

Horrela, enpleguaren zifren aldeko testuinguruan, Gipuzkoako hiriburuak BPGd-ari dagokionez aurrera egitea lortu du 2022 eta 2023 artean, % 5,5eko erritmoan; EAEkoaren (+% 5,3) eta Gipuzkoakoaren (+% 5,8) antzeko tasa da hori.

Inflazioa pixkanaka murrizten ari den testuinguruan –2023an % 3,6koa da[41] –, barne-produktu gordinak (BPGd) % 1,9ko hazkunde erreala izan du.

**Udaleko BPGd-aren bilakaera nominala Donostia, Gipuzkoa eta EAE 2022-2023 (milioi €)**

| | 2022 | 2023 | 2022 - 2023 bilakaera |
|---|---|---|---|
| Donostia | 8.322 | 8.781[42] | +% 5,5 |
| Gipuzkoa | 28.303 | 29.943 (a) | +%5,8 |
| EAE | 86.266 | 90.876 (a) | +% 5,3 |

(a) 2023ko IV. hiruhilekorako egindako aurrerapena eta zenbatespena
Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak eta Hiruhileroko kontu ekonomikoak (HKE).

### Donostiako biztanleko BPGd-a aurrera doa eta EAEko eta Gipuzkoako batez bestekoa gainditzen jarraitzen du.

Biztanleko BPGd-a, alegia, hiriko ondasun eta zerbitzuen ekoizpenari dagokionez neurtutako aberastasunaren biztanleko banaketa teorikoa, 46.437 eurokoa izan da donostiar bakoitzeko 2023an. 2022an baino % 5,3 gehiago, Gipuzkoako batez besteko ratioa % 10,4 baino gehiago, eta EAEko batez bestekoa % 12,3 baino gehiago.

**Donostiako biztanle bakoitzeko BPGd-aren bilakaera, Gipuzkoarekin eta EAErekin alderatuta 2017-2023**




Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak, Hiruhileroko kontu ekonomikoak (HKE); Udal-errolda, 2023ko abenduaren 31.

[41] *Iturria: Eustaten Kontsumorako prezioen indize orokorra. Urteko batez besteko aldakuntza 2023*

[42] *Donostiarako kalkulatutako datua, honako elementu hauen bilakaera kontuan hartuta, 2022ko ekitaldiari dagokionez: EAEko hiruhilekoko BPGd-aren sektorekako bilakaera (Eustaten Hiruhileroko kontu ekonomikoak), EAEko eta Donostiako enpleguaren sektorekako bilakaera, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren bidez.*

## 2.2.- Donostiako enpresa-sarea

- Donostiako enpresa-sarea zertxobait uzkurtu da (-% 1,5), Gipuzkoan (-% 1,2) eta EAEn (-% 1,1) gertatu den bezala, baina enpresa-parkeak estatu mailan izan duen atzerakada (-% 5,4 [43]) baino arinagoa izan du.
- Donostiako establezimenduen % 72k baino gehiagok 2 lanpostu baino gutxiago dituzte.
- Donostia hiriburu ertaina da, eta enpresa-dentsitate (80 enpresa 1.000 biztanleko) handiagoa du populazio handiagoko hirien aldean (Bilbo, Sevilla, Malaga edo Zaragoza).
- Hirian sortutako enplegua % 2,2 hazi da; hazkunde hori tamaina handiagoko enpresa-sarean oinarritzen da (10 enplegu baino gehiago).

**Enpresa-parkearen murrizketa: enpresa gutxiago eta establezimendu gutxiago dituen enpresa-parke batean banatutako enplegu gehiago.**

Donostiak egoitza fiskala hiriburuan duten 15.600 enpresa baino gehiago ditu 2023an (eta 17.000, egoitza hirian bertan edo kanpoan duten enpresak kontuan hartuz gero). Horiek 18.085 establezimendu aktiboren artean daude banatuta, eta guztira 98.752 lanpostu sortzen dituzte.

Empleguari dagokionez, azpimarratu behar da % 10 baino zertxobait gehiago egunero Donostiara lanera joaten diren pertsonak direla.

Bilakaeraren haritik, enpresa eta establezimendu-parkea % 1,5 inguru murriztu da oro har; 259 enpresak saldo negatiboa izan dute eta 2022tik 2023ra bitartean 268 establezimendu galdu dira. Enpresa-parkearen uzkurdura tamaina txikiagoko ehunarekin lotzen da, eta, beraz, hirian enpresa gehiago kontzentratzea eragiten du.

Enpresa-parkea uzkurtu egin da Gipuzkoan (-% 1,2) eta EAEn (-% 1,1) gertatu den bezala, eta, nolanahi ere, hirian sortutako enplegua % 2,2 areagotzea lortu du.

Errealitate horrek agerian uzten du enplegua enpresa gutxiagotan kontzentratzen dela eta jarduera-sektorearen arabera aldeak daudela; hala, industriaren sektoreak % 1,5 handitu du establezimenduen kopurua 2022tik 2023ra bitartean, eta eraikuntzaren eta zerbitzuen sektoreak % 7 eta % 1,1eko galera izan dute enpresa-parkean, hurrenez hurren.

[43] EINeko Enpresen Direktorio Nagusia

### Donostiako enpresa eta establezimendu kopurua 2023

**15.606**
Enpresak dute egoitza Donostian
**17.001**
Enpresak dute jarduera Donostian
**18.085**
Establezimendu

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a

### Enpresen saldo garbiaren bilakaera 2018-2023




Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a.

**Enpresa-dentsitate konparatiboki esanguratsua hiri ertain batentzat.**

Estatuko hiri nagusiekin konparatuta, Donostia enpresa-dentsitateagatik nabarmentzen da, 1.000 biztanleko 80 enpresaren ratioa du eta. Horrela, Madrildik gertu dago, eta biztanleria-maila handiagoko hiriburuen dentsitateak gainditzen ditu, hala nola Bilbo, Sevilla, Malaga edo Zaragoza.

### Donostiaren enpresa-dentsitatea estatuko beste hiriburu batzuekin alderatuta 2023




Iturria: EIN. Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) eta Udal-errolda. 2023ko urtarrilaren 1a

**Enpresen tamaina enpleguaren arabera.**

Gipuzkoako hiriburuko enpresa-sareak mikro izaerako batez besteko dimentsioa du. Hala, alde batetik, 2023an Donostiako 10 establezimendutatik 7k baino gehiagok 2 enplegu baino gutxiago dituzte. Bestetik, enpresen % 53,1 pertsona fisikoak dira.

Mikroenpresek enpresa-ehunean duten protagonismoa Donostialdeko, Gipuzkoako eta EAEko errealitatea ere bada, ehun mikro horrek % 71 inguruko pisua baitu.

**Establezimendu kopuruaren banaketa enplegu-mailaren arabera 2023**




Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a

**Enpleguaren hazkundea eta kontzentrazioa tamaina handiagoko establezimenduetan eta mikroenpresa kopuruaren jaitsiera, finkatzen diren joera gisa.**

Hiriko enpresen morfologia aldatzeko joera dago. 50 lanpostutik gorako establezimenduen kopurua (274 establezimendu guztira) enpresa-parkearen % 1,5 baino ez da; sare hori % 4,2 hazi da 2022. urtearekin alderatuta, eta Gipuzkoako hiriburuan sortutako enpleguaren % 44 inguru biltzen du. Era berean, 10-49 lanpostuko establezimenduek urte arteko % 4,7ko bultzada izan dute.

Hala ere, 9 lanpostu baino gutxiago dituzten establezimenduen kasuan (hiriko guztizko enpleguaren heren bat inguru osatzen dute ehun horretan), zifrak murriztu egin dira 2022tik 2023ra bitartean; errealitate hori establezimendu txikienei dago lotuta (2 lanpostu baino gutxiago), % 2,5eko galera izan baitute enpresa-parkean. Gainera, uzkurdura hori 2021-2022 aldikoa baino handiagoa da.

**"Gazela" enpresak, neurri ertaineko (10 lanpostutik gorako) enpresa-ehunean oinarritutako hazkunde "bizkorraren" adierazgarri.**

2023an Donostiak 39 gazela enpresa[44], ditu, 2021ean baino 16 gehiago[45]. Enpresa-sare horrek 2021eko okupazio-zifrak bikoiztu ditu ia-ia, eta 2023an 2.642 lanpostu sortu ditu. Aipatzekoa da 4 lanpostutik bat EZI - Enpresen eta I+Gren eremuetako enpresekin dagoela lotuta.

**Establezimenduen bilakaera enpresa-establezimenduaren tamainaren arabera 2022-2023 (% eta establezimendu kopurua)**




Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. Bilakaera 2022ko urtarrilaren 1aren eta 2023ko urtarrilaren 1aren artean.

[44] Kontzeptu hori gutxienez 10 lanpostutik abiatuta hiru urtean tamaina bikoiztea edo gehiago lortzen duten enpresekin dago lotuta.
[45] Iturria: Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. 2023ko urtarrilaren 1a

## 2.3.- Udal-sare ekonomikoaren sektore-azterketa

- Zerbitzuen sektoreak % 88,2ko ekarpena egin dio udalerriko BPGd-ari eta hiriko enpleguaren % 91,5 sortu du 2023an.
- Hirugarren sektoreko establezimendu-aren pisua (% 89) EAEko hiriburuen artean handiena da (% 87 Bilbon eta % 83 Gasteizen), eta EAEko batez bestekoaren (% 71,4) gainetik dago.
- Donostiak hirugarren sektoreko dentsitate esanguratsua du (25 establezimendu inguru 1.000 biztanleko): Bartzelonakoak (27) baino 2 puntu gutxiago ditu, eta Malagakoak (24), Sevillakoak (22) eta Madrilgoak (21) baino gehiago.
- Industriak (BPGd-aren urte arteko hazkundea % 4koa izan da) eta eraikuntzak (2022an bezala mantendu da) tokiko ekonomiari % 6ko ekarpena egin diote, eta enpleguaren % 4 sortu dute, hurrenez hurren.

**Hirugarren sektorea tokiko ehun ekonomikoaren eragile gisa: BPGd, establezimenduak eta enplegua.**

Zerbitzuen sektoreak 7.749 milioi euroko bolumena sortu du 2023an, eta 2022an baino % 6 gehiago egin du aurrera. Sektore horrek protagonismoa du tokiko ekonomian. 2023an, udaleko BPGd-ari % 88 baino gehixeagoko ekarpena egin dio, % 89koa establezimenduen kasuan eta hirian sortutako enpleguari % 91 baino gehixeagokoa.

Enplegua aurrerantz doa, tamaina handiagoko enpresen dinamikari esker, ostalaritzari, EZIei eta I+Gko enpresei lotutako adarrei esker[46], eta teknologia-enpleguari esker.

### BPGd-aren, establezimenduen eta lanpostuen banaketa zerbitzuen sektorean 2023

| | BPGd | | | Establezimenduak | | | Lanpostuak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zenb. | % pisua | % bilak. 2022-23 | Zenb. | % pisua | % bilak. 2022-23 | Zenb. | % pisua | % bilak. 2022-23 |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza | 6.121.271 | % 0,1 | % 29,3 | 67 | % 0,3 | % 4,7 | 133 | % 0,1 | % 22,0 |
| Industria eta energia | 524.753.393 | % 6,0 | % 3,9 | 526 | % 2,9 | % 1,5 | 4.131 | % 4,2 | % 0,5 |
| Eraikuntza | 501.315.326 | % 5,7 | % 0,0 | 1.405 | % 7,8 | -% 6,6 | 4.184 | % 4,2 | -% 4,0 |
| Zerbitzuak | 7.748.627.963 | % 88,2 | % 6,0 | 16.087 | % 89 | -% 1,1 | 90.304 | % 91,5 | % 2,9 |
| **GUZTIRA** | **8.780.817.953** | **% 100,0** | **% 5,5** | **18.085** | **% 100,0** | **-% 1,5** | **98.752** | **% 100,0** | **% 2,2** |

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak eta Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. 2023ko urtarrilaren 1a.

### BPGd-aren, establezimenduen eta lanpostuen banaketa zerbitzuen sektorean 2023

| | Euroak | % b. | Establezimenduak | % b. | Lanpostuak | % b. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| a) Ezagutza-zerbitzu intentsiboak (EZI) | 4.300.488.520 | % 49,0 | 6.402 | % 35,4 | 34.787 | % 35,3 |
| a.1.- EZI - Enpresak | 1.968.151.503 | % 22,4 | 4.080 | % 22,6 | 13.790 | % 14,0 |
| a.2.- EZI – Pertsonak (SEPES) | 2.332.337.017 | % 26,6 | 2.322 | % 12,8 | 20.997 | % 21,3 |
| a.2.1.-Pertsonentzako zerbitzuak: hezkuntza | 968.578.495 | % 11,0 | 833 | % 4,6 | 9.330 | % 9,5 |
| a.2.2.- Pertsonentzako zerbitzuak: osasuna | 1.363.758.522 | % 15,5 | 1.489 | % 8,2 | 11.667 | % 11,8 |
| b) Zerbitzu operatiboak | 3.448.139.444 | % 39,3 | 9.685 | % 53,6 | 52.803 | % 53,5 |
| b.1.- Merkataritza | 495.912.190 | % 5,6 | 2.418 | % 13,4 | 8.547 | % 8,7 |
| b.2.- Ostalaritza | 526.906.701 | % 6,0 | 1.460 | % 8,1 | 8.689 | % 8,8 |
| b.2.- Beste zerbitzu operatibo batzuk* | 2.433.069.180 | % 27,7 | 5.807 | % 32,1 | 35.567 | % 36,0 |
| **Zerbitzuen sektorea, guztira** | **7.748.627.963** | **% 88,2** | **16.087** | **% 88,9** | **87.590[47]** | **% 88,8** |

* Informazioa eta komunikazioak, administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, arte, jolas eta entrenamendu-jarduerak, finantza eta aseguru-jarduerak, higiezin-jarduerak, albaitaritza-jarduerak, administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte-segurantza, merkataritzako bitartekariak, handizkako merkataritza, mantentze-lanak eta konponketa, beste zerbitzu batzuk, gizarte-zerbitzuak eta antzekoak, eta garraioa eta biltegiratzea.
Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a.

[46] 36. Ostalaritza; 40. Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduera batzuk; informazio-zerbitzuak; 41. Finantza-zerbitzuak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik; 46. Arkitekturako eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakuntza eta analisi teknikoak; 47. Ikerketa eta garapena

[47] 2. ohar metodologikoa: 2023ko zerbitzuen sektoreko enpleguak (90.304) EZIen jarduera-adar eta zerbitzu operatibo bakoitzera banatzea eta egoztea Donostia Sustapenaren kalkulu bat da, eta Eustaten lagin-banaketaren mende dago; izan ere, konfidentzialtasun-printzipioaren arabera, Eustatek ez du daturik ematen mikro mailako establezimendu bakar bat agertzen bada, datu pertsonalak babesteko helburuarekin. Hori dela eta, taulan agertzen den zerbitzuen kopuru orokorra (87.590) ez dator bat Donostiako zerbitzuen sektorean zenbatutako 2023ko lanpostuen guztizkoarekin (90.304).

### Hirugarren sektorearen protagonismoa, enpresa-dentsitate konparatiboki handia duena

Donostiak, batez ere hirugarren sektoreko hiriburu gisa, pisua du hirugarren sektoreko enpresa-ehunean (% 89), EAEko hiriburuena baino handiagoa –Bilbo (% 86) eta Gasteiz (% 83)–.

**Zerbitzuen sektorearen pisuaren konparazioa (establezimendu kopurua) EAEko hiriburuak**




**Hirugarren sektorearen pisua**




Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Direktorioa. 2023ko urtarrilaren 1a eta Biztanleen udal estatistika.

### Hiri ekonomia-dentsitatea oso esanguratsua

Gipuzkoako hiriburuak hiri-ekonomia sendoa du. Hala bada, 2023an merkataritza eta ostalaritza-dentsitate handia du (25 establezimendu 1.000 biztanleko), eta Bartzelonakoaren azpitik dago soilik (27 establezimendu 1.000 biztanleko); horrela, hiriburu handietako hiri-ekonomien dentsitateak gainditzen ditu, adibidez, Malaga, Sevilla, Madril eta Zaragozakoak.

**Hiri ekonomia-dentsitatea, beste hiriburu batzuekin alderatuta 2023**




Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) eta Errolda. EIN. 2023ko urtarrilaren 1a.

### Merkataritza:

Txikizkako merkataritzari soilik erreparatuta, 2.418 merkataritza-establezimendu ditu hiriak, eta azken urteotan sektore horrek establezimenduei dagokienez izan duen murrizketa estrukturala eta globala gorabehera, oraindik merkataritza-dentsitate konparatiboki handia mantentzea eta enplegu-zifrei eustea lortu du.

Izan ere, 2023an 1.000 biztanleko 13 dendako ratioa du Gipuzkoako hiriburuak (2022koaren antzekoa). Horrela, EAEko hiru hiriburuen artean lehen postuan dago, eta Donostialdeko batez bestekoa baino 2 puntu gehiago eta Gipuzkoako merkataritza-dentsitatea baino 3 puntu gehiago ditu. Nolanahi ere, merkataritza-dentsitatea mantentzeak lotura du Donostiako biztanleriaren murrizketarekin.

**Donostiako merkataritza-dentsitatea Donostialdearekin, Gipuzkoarekin, Bilborekin eta Gasteizekin alderatuta 2023**




Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat eta Biztanleen udal estatistika. Eustat.

5 lanpostu baino gutxiagoko establezimenduek osatzen dute merkataritza-parke hori (% 88,3), eta guztira 8.547 enplegu sortu ditu 2023an.

Bilakaeraren ildotik, Donostiako enpresa-parke osoa (-% 1,5) bezala, Donostiako merkataritza-sektorea % 2,6 uzkurtu da —Gipuzkoan eta EAEn gertatu den bezala, merkataritza-parkearen % 2,7 galdu baitute—.

Dena den, merkataritza-sektoreak enpleguaren zifrei eutsi die 2023an, eta urte arteko % 2,1eko igoera izan du kontratu mugagabeei dagokienez.

Horrela, merkataritza-sektoreak eragile ekonomiko indartsua izaten jarraitzen du hirian eta lurralde historikoan. Enpleguaren % 8,7 sortu du Donostian[48], eta Donostialdeko merkataritzaren % 65 eta Gipuzkoako merkataritza-parkearen % 31 hartzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako hiriburuekin eta estatuko hiri handiekin alderatutako datuak ikusita, ondoriozta daiteke merkataritza-hornidurak arrakastaz eutsi diela azken bi hamarkadetan egiturazko aldaketak (erosketa-formatu berriak, azalera handiak ugaritzea...) eta aldaketa koiunturalak (2008ko krisia; 2018ko krisia, 2020-2021eko osasun-krisia, 2022ko energia-krisia edo 2023ko inflazio-testuingurua) direla-eta hiri-ekonomiaren sektore horrek aurre egin behar izan dien erronka handiei.

Sektoreka, "eguneroko elikagaien" adarraren pisua nabarmentzen da, 10 establezimendutik 3rekin eta hiriburuan sortutako merkataritza-enpleguaren % 36rekin. Bestalde, pertsonen ekipamendua (moda, oinetakoak eta osagarriak) merkataritza-parkearen % 24 da, eta Donostiako merkataritza-enpleguaren % 23, 2023an.

**Establezimenduen eta lanpostuen banaketa txikizkako merkataritzako jarduera-adarren arabera 2023 (%)**

| | Establezimenduen % | Lanpostuen % |
|---|---|---|
| Eguneroko elikadura | % 30,3 | % 35,8 |
| Moda, oinetakoak eta osagarriak | % 23,8 | % 23 |
| Drogeria, lurrindegia eta farmazia | % 7,3 | % 8,9 |
| Etxeko ekipamendua | % 11,0 | % 8,2 |
| Elektronika eta komunikazioak | % 4,3 | % 3,7 |
| Aisia eta kultura | % 6,0 | % 5,8 |
| Ibilgailuen salmenta | % 2,5 | % 4 |
| Establezimenduko txikizkako bestelako dendak | % 10,8 | % 8,9 |
| Establezimendutik kanpoko txikizkako jarduera | % 3,9 | % 1,6 |
| **Guztira** | **2.418 establezimendu (% 100)** | **8.547 lanpostu (% 100)** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a.

[48] Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a.



**Ostalaritza:**

2023an, Donostiako ostalaritzak (jarduera horrek ostatu eta jatetxe-zerbitzuak hartzen ditu barne) 1.460 establezimendu [49] eta 8.689 lanpostu [50]ditu guztira, eta horietatik % 82 eta % 79, hurrenez hurren, jatetxe-jarduerarekin daude lotuta (jatetxeak, tabernak eta kafetegiak eta beste zerbitzu batzuk).

Enpleguari erreparatuta, 2023an puntu erdi egin du gora ekarpenari dagokionez, eta hiriko enplegu osoaren % 8,8 izatera iritsi da.

Ostatuaren kasuan, Donostiak 2023an honako hauek ditu guztira[51]:

- 148 hotel-establezimendu (90 pentsio, 1,2 eta 3 izarreko 31 hotel eta 4 eta 5 izarreko 27 hotel); 7.845 plaza dituzte egunean.
- 13 apartamentu turistiko[52] , eta horiek 853 plaza dituzte gunean.
- 12 landa-ostatu; 115 plaza dituzte egunean.

Horrela, Donostiako ostalaritza-parkea % 1,1 hazi da establezimendu kopuruari dagokionez; 2022tik 2023ra bitartean 16 establezimenduk saldo garbi positiboa izan dute, eta enpleguan % 8,7ko bultzada handia izan du, hau da, 2022tik 2023ra bitartean 700 lanpostu berri inguru sortu dira

**Ostalaritzako establezimenduen eta enpleguaren banaketa azpisektoreen arabera 2023 (%)**

| | Establezimenduen % | Lanpostuen % |
|---|---|---|
| **Ostatu-zerbitzuen establezimenduak** | **% 17,9** | **% 20,8** |
| Hotelak eta antzeko ostatuak | % 11,8 | % 16,9 |
| Turismo-ostatuak eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuk | % 5,2 | % 2,1 |
| Beste ostatu batzuk | % 1 | % 1,8 |
| **Jatetxe-arloko zerbitzuen establezimenduak** | **% 82,1** | **% 79,2** |
| Jatetxeak eta janari-postuak | % 41,4 | **% 54,5** |
| Edarien establezimenduak | % 37,9 | % 20,5 |
| Beste zerbitzu batzuk (catering) | % 2,7 | % 4,3 |
| **Guztira** | **1.460 establezimendu (% 100)** | **8.689 lanpostu (% 100)** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a.



[49] Ez da sartzen erabilera turistikoko etxebizitzei lotutako establezimendurik.
[50] Ez da sartzen erabilera turistikoko etxebizitzei lotutako lanposturik.
[51] Iturria: Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta. Eustat 2023.
[52] Ostatu-unitatez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainiak eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuak, modu profesional eta ohikoan aldi baterako ostatua ematera bideratzen direnak, ostatu hartutako pertsonarentzat bizileku-aldaketa izan gabe.

## 2.4.- Ezagutza-zerbitzu intentsiboen hiria (EZI)

“EZI” kontzeptuak nagusiki ezagutza espezializatu eta aurreratuen aplikazioan eta transferentzian zentratzen diren jarduera ekonomikoei egiten die erreferentzia. Zerbitzu mota horren ezaugarria da zerbitzu horiek eskaintzen dituztenek trebetasun eta esperientzia handia izatea, bai eta ezagutza egokiaren arloko aurrerapenetara etengabe egokitzea eta eguneratzea ere. EZIek oso espezializatuta dauden arloak biltzen dituzte; esaterako, osasuna, soluzio teknologikoen garapena, ingeniaritza edo ikerketa, besteak beste.

- Ezagutza-zerbitzu intentsiboak[53] BPGd-ren erdia inguru dira 2023an, eta urtebetean ehuneko 5,6 puntu igo da horien ekarpena.
- Gipuzkoako hiriburuan, guztira, ezagutza-zerbitzu intentsiboko 6.402 establezimendu daude.
- EZI enpresa-parkeak 34.787 lanpostu sortzen ditu, alegia, hiriko biztanleria landunaren % 35,3, eta enpleguan (% 3,2), berriz, hiri osoan baino gorakada pixka bat handiagoa izan du.

### EZIen sarearen goranzko ekarpen sozioekonomikoa

EZIek 4.300 milioi euro sortu dituzte 2023an, tokiko BPGd-aren % 49 dira, eta hiriko establezimenduen eta lanpostuen % 35 baino gehiago.

Orobat, azpimarratu behar da EZIak oso moldagarriak direla gizabanakoen eta erakundeen premia espezifikoetara, eta ezagutza aurreratuetan oinarritutako irtenbide pertsonalizatuak eskaintzen dituztela. Eskainitako zerbitzuen publiko objektiboaren arabera, EZIak bi talde handitan sailka daitezke, batez ere pertsonei (SEPES) edo enpresei (EZI – Enpresak) zuzenduta dauden kontuan hartuta.

EZIek 2022-2023 bitartean izan duten bilakaerari erreparatuz gero (+% 3,3), ikusten da EZI-Enpresak (+% 5,1) eta SEPES (+% 2,1) zerbitzuek hazkunde positiboa izan dutela enplegatutako pertsonei dagokienez, eta, horrela, hiriak zientzian, berrikuntzan eta ezagutzan oinarritutako egitura sozioekonomikoaren aldeko apustua indartu dutela.

### Ezagutza-zerbitzu intentsiboen banaketa-eskema eta ekarpena BPGd-ari, enpleguari eta establezimenduei dagokienez 2023




### Ezagutza-zerbitzu intentsiboetako enpleguaren bilakaera Donostian 2022-2023




Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a.

[53] EJSN 62: Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduera batzuk; EJSN 69: Jarduera juridikoak eta kontabilitatekoak; EJSN 70: Egoitza nagusietako jarduerak; enpresa-kudeaketako aholkularitza-jarduerak; EJSN 71: Arkitekturako eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakuntzak eta analisi teknikoak; EJSN 72: Ikerketa eta garapena; EJSN 73: Publizitatea eta merkatu-azterketak; EJSN 74: Beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk; EJSN 85: Hezkuntza; EJSN 86: Osasun-jarduerak.

### EZIak, produktibitate handiagatik bereizten diren zerbitzuak

Zerbitzu mota horiek produktibitate handia dute. 2023an, lanpostuko BPGd-aren ratioak 120.633 eurotik gorakoak dira EZI-Enpresak zerbitzuen kasuan eta 111.000 eurotik gorakoak SEPES zerbitzuen kasuan.

Urte berean, EZI-Enpresak zerbitzuek EAEko industriaren batez besteko produktibitate-maila gainditu dute (118.730 € lanpostuko [54]).

### Pertsonei zuzendutako ezagutza-zerbitzu intentsiboak (SEPES): ekarpen garrantzitsua udaleko BPGd-ari eta enpleguaren hazkunde moderatua.

Pertsonei (hezkuntza eta osasuna) zuzendutako ezagutza-zerbitzu intentsiboek, SEPES nomenklaturapean, udaleko BPGd-aren % 27 inguru (% 15,5 osasunean eta % 11 hezkuntzan) eta hiriko enpleguaren % 21 sortzeko gai dira. Kasu horretan, enplegua EZI-Enpresak zerbitzuen kasuan baino apalago hazi da, % 2,1eko urte arteko erritmoan, eta 2023an 21.000 lanpostu izatera iritsi da.

### Enpresetara bideratutako ezagutza-zerbitzu intentsiboak (EZI-Enpresak): enplegua sustatzea, eta, hala, hirian ekoizpen eta ekonomia-ereduaren aldaketa progresiboa sendotzea.

Bestalde, EZI-Enpresak zerbitzuek 4.080 establezimendu dituzte guztira hirian; hiriko BPGd-aren % 22 baino zertxobait gehiago sortzen du enpresa-sare horrek, eta, enpleguari erreparatuta, % 5,1eraino hazi da. Horrela, 2023an EZI-Enpresak zerbitzuek 13.790 pertsonari eman diete lana guztira.

**Produktibitatea zerbitzuen sektoreko jardueretan Donostia 2023**

| | |
|---|---|
| SEIC-Empresas | **120.633 €/empleo** |
| SEPES | **111.079 €/empleo** |
| Servicios operativos | **65.302 €/empleo** |

Fuente: Eustat. Cuentas Trimestrales y Directorio de Actividades Económicas. 1 de enero 2023

EZI-ENPRESAK hiru kategoriatan bereiz daitezke[55]:

- Zerbitzu profesionalak (EZI-P): establezimenduen % 43 inguru eta EZI lanpostuen % 30 biltzen dute.
- Zerbitzu teknologikoak (EZI-T): establezimenduen % 35ekin EZI lanpostuen % 55 inguru dira.
- Sorkuntzako zerbitzuak (EZI-S): establezimenduen % 22 inguru dira, eta EZI lanpostuen % 15.

**EZI-Enpresak zerbitzuetako establezimenduen eta lanpostuen banaketa 2023**

| | % Establezimenduak | % b. | Lanpostuak | % b. | Produktibitatea* |
|---|---|---|---|---|---|
| Zerbitzu teknologikoak (EZI-T) | 1.427 | % 35,0 | 7.524 | % 54,6 | 121.782 €/enplegua |
| Zerbitzu profesionalak (EZI-P) | 1.745 | % 42,8 | 4.180 | % 30,3 | 128.533 €/enplegua |
| Sorkuntzako zerbitzuak (EZI-S) | 908 | % 22,2 | 2.086 | % 15,1 | 100.257 €/enplegua |
| **EZI-Enpresak, guztira** | **4.080** | **% 100,0** | **13.790** | **% 100,0** | **120.633 €/enplegua** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a.
*Orkestra. Iturria Sabi 2022

[54] Iturria: Eustaten Kontu ekonomikoak, 2022. urtea.
[55] EZI-P: zerbitzu profesional tradizionalak (kudeaketa, kontabilitatea, jarduera juridikoak, etab.)
EZI-T: teknologia berrietan oinarritutako zerbitzuak (I+G aholkularitza, ingeniaritza, informazioaren teknologiak, etab.)
EZI-S: sorkuntzako enpresa-zerbitzu intentsiboak (diseinu grafikoa, publizitatea, etab.)

## 2.5.- Jarduera ekintzailea

- Donostiako jarduera ekintzailearen tasak (TEA) maila goren berria lortu du, % 7koa.
- 2023an, langile autonomoen araubide bereziko 1.068 alta zenbatu dira hirian, eta 1.600 enpresa berri inguru erregistratu dira.
- Gainera, I+Gra bideratutako enpresa-ehunak hazten jarraitzen du, eta duela hamarkada bat erregistratutako zifrak bikoizten ditu.

### Jarduera ekintzailea gorantz

Gipuzkoako hiriburuko jarduera ekintzailea (% 7,0) —jarduera ekintzailearen tasaren (TEA[56] ) bidez neurtzen da— maila gorenera iritsi da azken 6 urteotan; muga horrek jarraipena eman dio pandemia hasi aurretik irekitako goranzko bideari.

Horrela, hiriko dinamika ekintzaileak estatuko (% 6,0) eta EAEko (% 5,2) TEA gainditzen du gaur egun, baita arlo horretako hiru autonomia-erkidego liderren mailak ere (Katalunia: % 6,9; Madril eta Valentzia: % 6,8)[57]. Hala eta guztiz, ekintzailetzaren adierazle hori EBko batez bestekoaren (% 8,9) azpitik dago.

### Ekintzailetza berritzailea

Donostiako TEA hazten doan testuinguruan, 2023an I+Gra bideratutako enpresa kopuru handiena izatera ere iritsi da hiria.

Donostiak 124 enpresa ditu 2023an. Hala bada, horiek osatzen duten enpresa-parkeak duela hamar urte zegoen enpresa-parkea 2,5 aldiz biderkatzen du, eta, bertan, I+G arloko 6 enpresa berrik saldo garbi positiboa dute.

I+Gn diharduten enpresen ehunaren ildotik, nabarmentzekoa da mobilizatutako lanpostuen bolumen handia dagoela (2.000 lanpostu baino gehiago) natur zientzien eta zientzia teknikoen esparruko 43 enpresa-establezimenduetan.



[56] Global Entrepreneurship Monitor (GEM) proiektuaren Total early-stage Entrepreneurial Activity
[57] Global Entrepreneurship Monitor Informea GME España 2022 - 2023

### Donostian I+Gko jardueretan diharduten enpresa aktiboen bilakaera 2013-2023




Iturria: Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE; EJSN 72)



### Lanpostuak eta establezimenduak I+G jardueretan 2023




Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a.



# 3.-Zientzia eta berrikuntzaren hiria

Donostiak Zientzia eta berrikuntzaren hiri gisa duen posizionamenduak indarra hartzen jarraitzen du, eta hirian izandako I+Gko inbertsio-mailak % 17 baino gehiago egin du aurrera urtebetean.

Inbertsio hori tokiko eragile-sare handi baten bidez bideratu da (EZIak, I+G eragileak, unibertsitateak...). Gainera, inbertsio horrek I+Gri lotutako jardueretan geroz eta lanpostu gehiago dinamizatzen ditu (ikertzaileak, I+G jardueretako lanpostuak eta lanpostu teknologikoak).

Horrela, Donostian gaur egun I+Gri lotutako 6.300 pertsona inguru daude, jarduera-sektore ezberdinen artean banatzen direnak. 2023an, 8.900 afiliazio inguru egon dira jarduera teknologikoen adarrei lotutako lanpostuetan, bai industria-arloan, bai eta, batez ere, I+G zerbitzuetan ere.

## 3.1.- I+Ga

### 3.1.1.- I+Gko jardueretan inbertitzea

**Bizkortu egin da I+Gko jardueretan egindako inbertsioaren hazkundea, estatuan eta Europan baino erritmo biziagoan.**

Hirian I+Gko jarduerek sortutako inbertsioa 325,5 milioi eurokoa[58] da. Inbertsio horrek bilakaera hau izan du:

- Etengabe ari da hazten azken urteotan, eta azken bosturtekoan guztizko I+Gko inbertsioak % 44 egin du aurrera.
- Pixkanaka bizkortzen ari den bultzada izan du I+Gko inbertsioak azken urteotan: 2020-2021 eta 2021-2022 artean, urte arteko % 10eko eta % 17,4ko aurrerapenak izan ditu, hurrenez hurren.

Izan ere, hirian I+Gko inbertsio mailan berriki bizitako hazkundea:

- Estatuan 2021tik 2022ra bitartean izandako hazkundea (% 12) baino handiagoa da.
- Nabarmena da Europako ekonomia nagusietan izandako hazkunde txikien aldean (Erresuma Batua: % 1; Alemania: % 7; Austria: % 8; Herbehereak: % 11 [59].
- EB 27ko hazkunde erritmo altuenak ere gainditu ditu[60] hirian izandako I+Gko inbertsioak, besteak beste, Eslovakia (+% 17,1), Letonia (+% 16,7), Grezia (+% 16,6) eta Estoniakoak (+% 16,5).

**I+Gko inbertsioaren bilakaera Donostian 2017-2022 (mila €)**




Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat, 2022ko abenduaren 31.

[58] 2023ko daturik ez dagoenez, 2022ko ekitaldia hartu da erreferentzia-urtetzat.
[59] COTEC txostena. I+Gren bilakaera. 2023ko azaroa.
[60] Iturria: R&D Expenditure. Eurostat 2021 - 2022.

**Udaleko BPGd-ari ekarpen nabarmena egiten dioten eta biztanleko inbertsio maila altuak dituzten I+Gko inbertsioak**

Donostian I+Gko inbertsioek BPGd-ari egindako ekarpena % 3,7an kuantifikatu da eta EAEko (% 2,0) eta Gipuzkoako (% 2,6) batez bestekoaren gainetik kokatzen da. Adierazle honi jarraikiz, I+Gk Europako hainbat herrialdetan duenaren antzeko pisua du Gipuzkoako hiriburuan (Suedia eta Belgika % 3,4; Austria % 3,2 eta Alemania % 3,1) .

Datu makroaren arabera, Donostiak biztanleko 1.724,4 euroko inbertsioa du I+Gn[61] ; ratio horrek bikoiztu egiten du EAEkoa (803 € biztanleko), eta nabarmen gainditzen du Madrilgoa (760 € biztanleko), Kataluniakoa (619 € biztanleko) eta Nafarroakoa (617 € biztanleko)[62] .

**BPGd-aren gaineko I+Gko inbertsioa, Donostia, Gipuzkoa, EAE eta Europan**




Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat. COTEC txostena. I+Gren bilakaera. 2023ko azaroa.



[61] I+Gko inbertsioa eta biztanleria 2022an (Biztanleen udal-errolda. 2022ko abenduaren 31).
[62] Iturria: I+Gko jarduerei buruzko estatistika 2022. Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

**Bioteknologiaren hazkunde garrantzitsua, hiriko ezagutza eremu espezifiko eta berezi gisa.**

• I+Gren testuinguruan, hirian bioteknologiaren esparrua nabarmentzen da, 2022 urtean 48 milioi euro pasatxoko inbertsioa egin baitzen esparru honetan, hau da, tokiko I+Gko inbertsio osoaren % 15[63]. Diziplina horrek, halaber, dinamismo handia izan du azken bost urteetan, % 67 inguruko hazkundearekin, hots, duela bost urte baino 1,7 aldiz handiagoa da ezagutza esparru honetan egindako inbertsioa.

Hiriburutik sustatutako bioteknologiako inbertsioa Gipuzkoa osoan arlo horretan egindako inbertsioaren % 89 baino zertxobait gehiago da, eta esparru espezifiko horretan EAEn egindako inbertsioaren % 31 da.

**Biztanle bakoitzeko I+Gko inbertsioa Donostian eta autonomia-erkidegoetan 2022 (€ biztanleko)**




Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat eta I+G jarduerei buruzko estatistika 2022. Estatistikako Institutu Nazionala (INE). 2022.

**Bioteknologiako inbertsioaren bilakaera Donostian 2017-2022 (mila €)**




Iturria: Bioteknologiako I+Gren estatistika. Eustat

**Donostiako bioteknologiako I+G inbertsioak Gipuzkoako eta EAEko bioteknologiako I+Gn egindako ekarpena**




Iturria: Bioteknologiako I+Gren estatistika. Eustat. 2022ko abenduaren 31.

[63] Bioteknologia zientzia eta teknologia organismo bizidunei aplikatzea da, baita horien zati, produktu eta ereduei ere, material bizia edo bizigabea aldatzeko, ezagutzak, ondasunak eta/edo zerbitzuak sortze aldera.

### Funtsen jatorria

Hiriko I+Gko inbertsioak bultzada indartsu hori izatea ahalbidetzen duten funtsen erdia baino zertxobait gehiago administrazio publikoen ekarpenak dira; sektore pribatutik datorren inbertsioa % 35 da. Sektore pribatuko enpresa-ekarpenari lotutakoa inbertsioa Donostian nabarmen txikiagoa da EAEren aldean (% 56).

Bioteknologiaren kasuan, enpresa pribatuen ekarpenaren pisua (% 36,5) EAEkoaren (% 37,5) parekoa da. Errealitate honek lotura zuzena du Bioteknologia esparruko enpresek hirian duten kontzentrazio handiagoarekin (bioteknologiari[64] lotutako 3,8 establezimendu 1.000 establezimenduko); kontzentrazio hori Donostialdekoa (2,8 establezimendu 1.000 biztanleko), Gipuzkoakoa (2,1) eta EAE osokoa (1,7) baino askoz handiagoa da.

Bestalde, EAErekin alderatuta, atzerriko funtsetara ireki izana (% 11 vs. % 8), erkidegoko programetatik edo beste erakunde publiko batzuetatik eratorritako funtsak eta atzerritik datozen funtsak nabarmendu behar dira.

**I+Gko inbertsioaren banaketa, 2022ko funtsen jatorriaren arabera Donostia vs. EAE**




Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat, 2022ko abenduaren 31.
Atzerritik datozen funtsak: Europar Batasunaren (erkidegoko programak), agentzien eta nazioarteko beste erakunde batzuen eta atzerriko herrialdeen dirulaguntzak. Erakunde pribatuetatik datozen funtsak: Erakunde pribatuetatik datozen funtsak: I+G egiten duten enpresen funts propioak, gehi enpresa pribatu, publiko eta ikerketa zentroetatik datorren finantzaketa.



[64] EJSN 721 (Natura-zientzia eta zientzia teknikoetako ikerketa eta garapen esperimentala) taldeko jarduerak sartzen dira: 7211: Bioteknologiako ikerketa eta garapen esperimentala, eta 7219: Natura-zientzia eta zientzia teknikoetako bestelako ikerketa eta garapen esperimentala.

### I+Gko inbertsioa diziplinaka: inbertsio dibertsifikatuagoa

Diziplinen arabera, Donostiako guztizko I+Gko inbertsioaren ia erdia ingeniaritzaren esparruan kontzentratzen bada ere (EAEko batez bestekoa baino ehuneko 20 puntu gutxiago), konparatiboki, zientzia medikoek (% 16) eta zientzia zehatzek (% 21) hartzen duten pisua nabarmentzen da. Hiriko I+Gko inbertsioaren % 37 inguru kontzentratzen dute bi ezagutza esparru hauek, EAEn berriz, guztizko I+Gko inbertsioaren % 21 kontzentratzen dute.

Dibertsifikazio horrek kualifikazio handiagoa eta kokapen estrategiko hobea eskaintzen dio hiriari gaur egun eta etorkizunari begira.

**I+Gko inbertsioaren banaketa, arlo edo diziplina zientifikoaren arabera 2022 Donostia vs. EAE**




Iturria: EAEko I+Gko jardueren inkesta. Eustat, 2022ko abenduaren 31.

### 3.1.2.- I+Gko enplegua

**I+Gko enpleguaren hazkunde handia, 2021-2022 bitartean azkartu egin dena.**

Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko apustua Gipuzkoako hiriburuan I+Gko enpleguaren hazkundean eta bolumenean islatzen da. Enplegu horrek, 2022an, 6.300 pertsona inguru bildu zituen, I+Gri[65] lotutako 4.294 DOB[66] enplegu gutxi gorabehera.

I+Gko DOB enplegu hori % 32 baino zertxobait gehiago hazi da hirian azken sei urteetan; I+Gko enpleguaren aldeko bultzada horrek nabarmen gainditzen du EAEn erregistratutakoa (% 21,5)[67]. Gainera, Donostiak urte arteko I+Gko enpleguaren hazkunde-erritmoa bizkortu du 2021-2022 bitartean; % 5,4ko aurrerapena izan du DOBn, EAE osokoa baino handiagoa (% 4,5).

**Donostian I+Gn diharduten pertsonen kopuruaren bilakaera 2016-2022**




Iturria: I+Gko jardueren inkesta. Eustat, 2022ko abenduaren 31.

[65] Dedikazio osoko langileak.
[66] Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jarduerei zuzenean lotutako pertsona guztiak sartzen dira, erantzukizun-maila bereizi gabe, baita I+Gko jarduerak administratzen eta zuzentzen dituztenak ere, baita I+Gko lanei zuzenean lotutako zerbitzuak dituztenak ere, adibidez, ikerketako laborategi edo liburutegietako laguntzaileak, ikerketa-unitate edo zerbitzuetara atxikitako administrazio-langileak, langile espezializatuak edo ez, eta abar.
[67] 2016-2022 da erreferentzia-aldia.

Bioteknologiaren esparrua, hiriko I+Gko enplegu osoaren % 13 inguru kontzentratzen duena, nabarmen hazi da 2016tik, zehazki, % 81era arte hazi da DOB langileen kasuan. Nahiz eta azken urte hauetan erregistratutako hazkundea zertxobait moteldu, aurrerapen handia izan da ezagutza eremu honetako enpleguan: urte arteko hazkunde-tasa % 3koa izan da DOB langileen kasuan, eta % 8koa diziplina horretan kontratatutako pertsonei dagokienez.

**Donostian bioteknologiako I+Gn dihardutenen pertsonen kopuruaren bilakaera 2016-2022**




Iturria: Bioteknologiako I+Gren estatistika. Eustat, 2022ko abenduaren 31.

**EAEko I+Gko enpleguari ekarpen handia, bioteknologiaren esparruan ere nabarmentzen dena.**

Gipuzkoako hiriburuan sortutako I+Gko enpleguaren bolumena oso esanguratsua da EAE osorako. Hala, Donostiako biztanleria landuna EAEko enpleguaren % 8,3ra mugatzen den arren, Donostian sortutako I+Gko enplegua EAE osoko I+Gko enpleguaren % 20 ingurukoa da[68]. Ekarpen handi hau hare esanguratsuagoa da bioteknologiaren kasuan, EAE osoan ezagutza esparru honetan okupatutako enpleguaren %31,5 kontzentratzen baitu Donostiak.

Azkenik, azpimarratu beharra dago I+Gko enpleguak Donostiako biztanleria aktiboaren % 5 inguru kontzentratzen duela gaur egun; EAEko ratioa bikoiztuz (% 2,3)[69].

**I+Gko DOB enpleguaren ekarpena Donostian EAErekiko 2022**




Iturria: I+Gko jardueren inkesta. Bioteknologiako I+Gren estatistika. Eustat. 2022ko abenduaren 31.

[68] DOB langileak; 2022ko erreferentzia-urtea.
[69] Iturria: Eustaten I+Gko jardueren inkesta, eta Biztanleriaren jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. 2022.

**Emakumeen ordezkaritzaren igoera, EAEko batez bestekoa baino handiagoa, eta gehienbat bioteknologiaren arloan nabarmentzen dena.**

Donostian I+Gn aritzen diren langileak ehuneko 0,7 puntu igo da urtebetean[70] eta modu orekatuan banatzen dira generoaren arabera (% 52,9 gizonak eta % 47,2 emakumeak[71]).

Emakumeen ordezkaritza horrek hainbat ñabardura ditu; teknikarien artean emakumeen pisua % 52ra eta laguntzaileen artean % 61,4ra iristen bada ere, ikertzaileen kasuan, emakumeen pisua % 44,1ekoa da.

I+Gko enpleguan emakumeek hirian duten pisua askoz handiagoa da EAEren aldean (ehuneko 9,4 puntu handiagoa).

Gainera, bioteknologiaren esparruan, emakumeen profila nabarmentzen da gure hirian: Esparru horretan lan egiten duten pertsonen % 60 emakumeak dira; proportzio hori % 69ra igotzen da teknikarien artean, eta, halaber, gehiengoa dira ikertzaileen profilean (% 57).

**Emakumeen ordezkaritza I+Gn diharduten langileen artean 2022**




Iturria: I+Gko jardueren inkesta. Bioteknologiako I+Gren estatistika. Eustat. 2022ko abenduaren 31.

## 3.2.- Enplegu teknologikoa [72]

Enpleguak I+Gn izan duen aurrerapenarekin bat etorriz, jarduera teknologikoetan intetsiboak diren lanpostuetako Gizarte Segurantzako afiliazioen bolumena ere aipagarria da.

Horrela, 2023an, COTEC Berrikuntzarako Fundazioak argitaratutako datuen arabera, Donostia teknologikoko adarrei lotutako afiliazio gehien dituen 100.000 biztanletik gorako[73]probintzia hiriburua da; 8.895 afiliatu ditu guztira (I+Gko adarrei lotutako 2.880), eta afiliazio horiek % 48 baino gehiago hazi dira azken hamar urteotan..

Testuinguru horretan koka daiteke, halaber, enplegu teknologikoak hiriko ekosistema zientifiko, teknologiko eta enpresarialean duen garrantzia. Enplegu mota horren atzean dauden jarduera teknologikoetan intentsiboak diren lanpostuak, intentsitate teknologiko altuko edo ertain-altuko industria-jarduerekin,[74] zein hirian dauden EZI eta teknologia aurreratuekin lotzen dira[75].

Izan ere, Donostiako enplegu teknologikoaren pisua % 7,2 da; enplegu hori zerbitzuen sektoreko I+Grekin lotuta dago gehienbat, eta ehuneko 1,5 puntu egin du gora azken hamarkadan.

**Enplegu teknologikoaren pisuaren bilakaera. 2013-2023**




* ehuneko puntu
Iturria: Enplegu teknologikoaren mapa. Cotec Berrikuntzarako Fundazioa.

[70] 2021 eta 2022 artean.
[71] Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, ordezkaritza orekatua izango da sexu biak gutxienez % 40an ordezkatuta daudenean.
[72] Enplegu teknologikoa Eurostatek High Tech Statistics-etarako erabiltzen dituen 13 jarduera-adarrekin dago lotuta
[73] 100.000 afiliatu baino gehiago dituzten udalerrien artean
[74] Adarrak: EJSN 20 Industria kimikoa; 21 Produktu farmazeutikoen fabrikazioa; 26 Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa; 27 Material eta ekipo elektronikoaren fabrikazioa; 28 Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa; 29 Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa; 30 Bestelako garraio-materialaren fabrikazioa.
[75] Adarrak: EJSN 59 Zinematografia, bideo eta telebista-programa, soinu-grabazio eta musika-edizioko jarduerak; 60 Irrati eta telebistako programazio- eta emisio-jarduerak; 61 Telekomunikazioak; 62 Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduera batzuk; 63 Informazio-zerbitzuak; 72 Ikerketa eta garapena

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) hirugarren postuan dago 2023an autonomia-erkidego guztien artean: enplegu teknologikoaren pisua % 9,9koa da bertan, eta Madrilgo Erkidegoak (% 10,5) eta Nafarroako Foru Erkidegoak (% 10,1) soilik gainditzen dute EAEren marka.

Testuinguru positibo horretan, Gipuzkoa nabarmentzen da bertako industria-sektoreak enpleguan duen pisu handia (biztanleria landunaren % 24,3[76]) ) eta enplegu teknologikoaren gehieneko % 12ko ratioarengatik. Hala bada, estatu mailan, probintzia guztien artean, lehen postuan dago Gipuzkoa, Europako batez bestekoa (% 10,7) baino handiagoa eta ekonomia aurreratu eta industrializatuenaren antzekoa (Alemania, % 13,4) den enplegu teknologikoaren ratiorekin.

Donostiako ekoizpen-egiturari dagokionez, zerbitzuek eta, bereziki, EZIek protagonismo handiagoa izanik, tokiko enplegu teknologikoa "I+Gko jarduerekin" eta "Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduera batzuekin" lotzen da gehienbat.

[76] Iturria: Biztanleria jardueraren arabera. Urteko batez bestekoa. Eustat



## 3.3.- Teknologiaren eta I+Gren ezagutza-sarea

Enplegu teknologikoari buruzko datuen arabera, lurralde mailan oso kontzentratua dagoen prozesu urbano baten aurrean gaudela esan genezake [77]. Azpimarragarria da teknologia eta ikerketa-zentroen, unibertsitateen, I+Gko eragile sarearen (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kideak diren 29 erakunde), hirian finkatutako EZI enpresa-ehunaren eta tokiko industria-ehunaren lana gaur egun hiriak duen posizionamendua lortzeko.

Hiriak, beraz, oinarri sendoak ditu orainari aurre egiteko, garapen-eredu hori indartzen eta bultzatzen jarraitze aldera. Eredu horren osagarri dira jada —eta etorkizun hurbilean hala izango dira— nazioartean punta-puntakoak diren hainbat esparru ezberdinetako inbertsio eta proiektu estrategikoak:

- **Berrikuntza eta ekintzailetza:** Donostiako berrikuntza eta ekintzailetza-nodo berria den EKINNekin, parke teknologikoaren zabalkuntzarekin (Miramon, Galarreta eta Hondarribiko eremuak), edo GOE proiektuarekin (26 milioi euroko inbertsioa).

- **Adimen artifiziala:** City Science Lab Gipuzkoa eta antzeko proiektuen bidez, MIT (Massachusetts Institute of Technology) erakundearekin lankidetzan.

- **Konputazio kuantikoa:** IBM-Euskadi Quantum Computational Center gidako proiektuekin (58 milioi euroko inbertsioa, Eusko Jaurlaritzak zientziaren arloan egindako inbertsiorik handiena) eta Donostia International Physics Center zentroaren zabalkuntzarekin (15 milioi euroko inbertsioa).

Prozesu horren osagarri, mundu-mailan liderrak diren Viralgen, Biotech Foods, Multiverse Computing edo Vivebiotech enpresak sortu dira besteak beste, Donostia lehen mailako I+G ekosistema bihurtzeko prozesuan lagundu dutenak.

- **Mugikortasuna:** MUBIL HUBren mugikortasun adimentsu eta jasangarriko egoitza berriarekin. Eskuzaitzetan dago; 10.000 metro karratu baino gehiago, energia biltegiratzeko laborategiak, *powertrain* elektrikoa eta hidrogenozko erregai-pila izango ditu.

- **Sektore Biosanitarioa:** Onkologikoaren ondoan kokatuko den Osakidetzaren protonterapia-zentro berriaren bidez.

- **Hidrogenoaren teknologiak:** hidrogenoaren teknologiak garatzeko Europan aitzindaria den laborategi bat sortzeko Tecnaliaren proiektuarekin.

[77] Iturria: Cotec Fundazioa



## Donostiako I+Gko eragileen sarearen mapa




| | | |
|---|---|---|
| ● | **Zientzia, teknologia eta berrikuntza zabaltzeko eragileak** | 1. GIPUZKOAKO OZEANOGRAFIA FUNDAZIOA<br>2. EUSKO IKASKUNTZA SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS<br>3. ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA |
| ● | **Bitartekaritza eragileak Eskaintza/ eskaria** | 1. JAKINTZA INDUSTRIEN ETA TEKNOLOGIA APLIKATUEN ELKARTEA GAIA<br>2. EIT MANUFACTURING WEST SL<br>3. EUSKADIKO MUGIKORTASUN ETA LOGISTIKA KLUSTER ELKARTEA<br>4. FUNDACION DE INVESTIGACION DE LA MAQUINA HERRAMIENTA<br>5. UNIBERTSITATE ZERBITZUETARAKO EUSKAL IKASTETXEA UZEI |
| ● | **Foku anitzeko Teknologia zentroak** | 1. CIDETEC ERAKUNDEA<br>2. CENTRO DE TECNOLOGIAS DE INTERACCION VISUAL Y COMUNICAC VICOMTECH ERAKUNDEA<br>3. CENTRO TECNOLÓGICO CEIT TEKNOLOGIA ZENTROA ERAKUNDEA<br>4. TECNALIA RESEARCH & INNOVATION ERAKUNDEA |
| ● | **Unibertsitateetako ikerketa-egiturak** | 1. UNIVERSIDAD DE NAVARRA - TECNUN<br>2. BASQUE CULINARY CENTER HEZKUNTZA FUNDAZIOA |
| ● | **Teknologiazentro sektorialak** | 1. BASQUE CULINARY CENTER FUNDAZIOA |
| ● | **Ikerketa Koperatiboko Zentroak (IKZ)** | 1. CIC NANOGUNE<br>2. BIOMATERIALETAKO IKERKUNTZA KOOPERATIBOKO ZENTROA, CIC BIOMAGUNE<br>3. BIODONOSTIA INSTITUTUA |
| ○ | **Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak** | 1. BCBL BASQUE CENTER ON COGNITION BRAIN AND LANGUAGE ELKARTEA<br>2.DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTER<br>3. MPC IKERKETA ELKARTEA-MATERIALS PHYSICS CENTER<br>4. BASQUE CENTER FOR MACROMOLECULAR DESIGN AND ENGINEERING, POLYMAT FUNDAZIOA |
| ○ | **Enpresetako I+G unitateak** | 1. EKOTRADE RECUPERACIONES AMBIENTALES SL<br>2. MULTIVERSE COMPUTING RESEARCH SL<br>3. HISPAVISTA LABS AIE<br>4. IBERMATICA DE INNOVACION SL INSTITUTUA<br>5. IKOR TECHNOLOGY CENTRE S. L.<br>6. BCV INNOVACIÓN Y DESARROLLO S.L. |
| ○ | **I+G Osasun erakundeak** | 1. CITA ALZHEIMER ALZHEIMER FUNDAZIOA<br>2.INSTITUTO GERONTOLOGICO MATIA FUNDAZIOA |

## Donostiako egungo eta etorkizuneko teknologia- eta I+G guneak




**Eventos / MICE**

- Passion for Knowledge
- Donostia Innovation Week
- Bioequity
- SS Gastronomika
- Uren Nazioarteko Kongresua "Quantum Matters"

| | |
|---|---|
| **Ekintzailetza eta berrikuntza** | **EKINN:** talentuaren garapena eta erakarpena<br>**Fabrika:** Erakundeen kultura-trantsiziorako errendimendu handiko zentroa |
| **Industriarako zerbitzu aurreratuak** | **Zuatzuko zerbitzu aurreratuen gunea** |
| **Parke tekno-logikoaren zabalkundea** | |
| **Gastronomia** | **GOE** (Gastronomy Open Ecosystem) |

| | |
|---|---|
| **Kuantikoa** | **IBM**: munduko 6. ordenagailu kuantikoa (55 M €-ko Inbertsioa)<br>**DIPC:** 300 ikerlari berri<br>Multiverse Computing |
| **Elektromugi-kortasuna** | **Elektromugikortasun Hub-a** (Mubil, CIDETEC, Tecnalia, Vicomtech) |
| **Jakintzaren industrializa-zioa** | **Viralgen**<br>**Biotech foods, Vivebiotech** |
| **Adimen Artifiziala** | **MIT** City Science Lab |

Iturria: Donostia Sustapena. 2022ko abenduaren 31a.

## 3.4.- Talentua bultzatzea hirian

Zientzian eta ezagutzan oinarritutako eredu sozioekonomiko baten alde egin duen apustuari esker, Donostia berrikuntzarako gune nabarmena bihurtu da, bai nazio mailan, bai nazioartean.

Ekosistemako hainbat eragileren artean banatutako kapital intelektualaren eta talentuaren presentzia funtsezkoa da eredu sozioekonomiko hori finkatu eta sendotzeko.

Testuinguru horretan, hiriak tokiko gazteen artean bokazio berriak pizteko eta nazioarteko talentu zientifikoa eta teknikoa erakartzeko erronka du aurrean.

### Diziplina zientifiko-teknikoetako ikasleak [78]

2022-2023 ikasturtean diziplina zientifiko-teknikoetan inskribatutako ikasleak honela banatzen dira:

- Lanbide Heziketaren kasuan, guztira 3.282 ikasle; horietatik 258k oinarrizko prestakuntza egiten dute, 1.214k erdi-mailakoa eta 1.810ek goi-mailakoa.
- 5.241 pertsona unibertsitate-eremuan.

Lanbide Heziketaren esparruan, gizonen nagusitasuna nabarmena da matrikulatuen artean, bereziki diziplina zientifiko eta teknikoetan. Izan ere, diziplina zientifiko-teknikoetan matrikulatutako ikasleen % 68 gizonak dira. Zentzu horretan, gizonezkoen pisua bereziki azpimarragarria da oinarrizko Lanbide Heziketan (% 95); ostera, erdi-mailakoan (% 63) eta goi-mailakoan (% 67) zertxobait txikiagoa da.

Bestalde, ikusten da emakumeen presentzia nabarmenagoa dela osasungintzari lotutako diziplinetan (% 68 erdi-mailako Lanbide Heziketan eta % 85 goi-mailako Lanbide Heziketan).

**Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak 2022-2023 ikasturtea**




Iturria: Eskola-jardueraren estatistika. Eustat. 2022-2023

[78] Akronimoa: Science, Technology, Engineering and Mathematics

Hezkuntza sistemako karrera zientifiko-teknologikoek ez dute lortzen ekoizpen-ehunaren beharrak asetzeko adina ikasle izatea[79]. Gainera, gaur egun, genero arrakala nabarmena dago oraindik ezagutza eremu hauetako ikasketetan. Proiekzio demografikoek are gehiago larriagotzen dute egoera hau.

Horrela, STEM diziplinei lotutako 29 unibertsitate-graduk osatutako eskaintzari erreparatuta, matrikulatutako emakumeen kopurua 3 gradutan baino ez da gizonezkoena baino handiagoa; zehazki, Ingeniaritza Biomedikoan (% 59), Kimikan (% 54) eta Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzan (% 51).

Ingeniaritzen kasuan, 2021-2022 ikasturtean matrikulatutako 10 ikasleetatik 7 gizonezkoak dira.

**Unibertsitateetan diziplina zientifiko-teknikoetako graduetan matrikulatutako ikasleak 2021-2022 ikasturtea**




Iturria: Unibertsitatearen estatistika. Eustat. 2021-2022.



[79] COTEC Fundazioa.



Argazkia: Donostia San Sebastián Turismoa

# 4.-Lurralde-begirada

Laugarren eta azken kapitulu honetan, labur-labur aurkeztuko dugu auzoen profil demografikoa, sozioekonomikoa eta bizi-kalitatea, Ikuspegi ekonomikotik eta enpresarialetik osatu dugu begirada hori. Hala bada, lurzoru urbanizatuko enpresa-parkearen ezaugarri nagusiak deskribatuko ditugu, bai eta jarduera-poligonoen funtzionaltasun eta espezializazio nagusiak ere.

## 4.1.- Profil demografikoa eta sozioekonomikoa auzoetan

Donostiako auzo bakoitzaren errealitate eguneratua modu sintetikoan irudikatzeko asmoz, azterketa kuantitatibo bat planteatuko dugu jarraian, **7 adierazle** demografiko eta sozioekonomikoren laburpen baten bidez; adierazle horietako bakoitzari 2023. urtean egotz dakiokeen balioa biltzeaz gain, aztertutako auzoak sailkapenean zer kokapen duen ere jaso dugu.

**Adierazle-multzoa auzoka**

| | |
|---|---|
| **1.** | Biztanleriaren zifra 2023 (kop.) |
| **2.** | Biztanleria migratzailearen zifra 2023 (kop.) |
| **3.** | Zahartze-tasa 2023 (65 urtetik gorakoen %) |
| **4.** | Unibertsitate-ikasketak dituen biztanleriaren proportzioa 2023 |
| **5.** | Biztanleria langabearen pisua, biztanleria osoarekiko [80] |
| **6.** | Etxebizitzen salerosketaren batez besteko prezioa m² bakoitzeko 2023ko IV. hiruhilekoa [81] |
| **7.** | 2021eko errenta pertsonalaren maila [82] |

**Erdialdea eta Gros, zahartze handiko eremuak**

Azken urteetan biztanleak galdu dituzten arren, pisu demografiko handia dute: hiriko biztanleen laurden bat.

Erdialdeak eta Grosek hiriko zahartze-maila altuena dute; izan ere, 10 biztanletik 3k 65 urte baino gehiago ditu.

Auzoek maila sozioekonomiko aipagarria dute, batez bestekotik gorako hezkuntza-maila dute eta lan-egoera ona. Hiriko erakarpen-gune nagusiak dira, baita migratzaileen eta hiritik kanpoko bisitarien hartzaile nagusiak ere.

| | Erdialdea | |
|---|---|---|
| 1 | **22.264 bizt. (+%0,5)** | **2º** |
| 2 | **2.816 bizt. (%12,6)** | **2º** |
| 3 | **% 30,8 > 65 urte** | **2º** |
| 4 | **%36 unib.** | **1º** |
| 5 | **%3,2** | **7º** |
| 6 | **6.131,4€/m² (+%3,4)** | **1º** |
| 7 | **33.153€** | **4º** |

| | Gros | |
|---|---|---|
| 1 | **17.943 bizt. (%-0,7)** | **4º** |
| 2 | **2.051 bizt. (%11,4)** | **4º** |
| 3 | **%32,3 > 65 urte** | **1º** |
| 4 | **%32 unib.** | **5º** |
| 5 | **%3,6** | **10º** |
| 6 | **5.399,5€/m² (-%2,83)** | **3º** |
| 7 | **29.301€** | **7º** |

[80] Iturria: Lanbide.(20233ko abenduaren 31a)
[81] Iturria: Higiezinen salerosketaren estatistika. 2023. Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.
[82] Iturria: Pertsonen eta familien errentaren estatistika 2021. Eustat.

**Amara Berri,** Auzorik populatuena da, eta hiriko migratzaileen hartzaile nagusia. Bertako biztanleek Erdialdekoen eta Grosekoen antzeko hezkuntza-maila badute ere, errenta-maila zertxobait txikiagoa da bertan, eta etxebizitza, berriz, eskuragarriagoa.

**Egia**k 5.000 biztanle inguruko biztanleria egonkorra du. Inguru horretako errealitate sozioekonomikoa eta lanekoa ertainaren eta baxuaren artean kokatzen da, eta migratzaile gehien dituen auzoetako bat da.

| | Amara Berri | |
|---|---|---|
| 1 | 30.192 bizt. (-%0,9) | 1º |
| 2 | 3.110 bizt. (%10,3) | 1º |
| 3 | %26,6 > 65 urte | 4º |
| 4 | %32 unib. | 6º |
| 5 | %3,3 | 8º |
| 6 | 4.695,5€/m² (-%0,98) | 7º |
| 7 | 27.234€ | 9º |

| | Egia | |
|---|---|---|
| 1 | 14.650 bizt. (+%0,3) | 7º |
| 2 | 1.458 bizt. (%10) | 6º |
| 3 | %25,7 > 65 urte | 5º |
| 4 | %25 bizt. | 9º |
| 5 | %3,8 | 11º |
| 6 | 4.100,5€/m² (-%2,83) | 8º |
| 7 | 23.548€ | 12º |

**Mendebaldea: Antiguo, Aiete, Ibaeta eta Igeldo.** Hiriaren mendebaldean dauden lau auzo horiek, zeinek 10.000 biztanle baino gehiago baitituzte (Igeldok izan ezik; 1.000 biztanle inguru baino ez ditu), Donostiako biztanleriaren % 20 baino zertxobait gehiago biltzen dute batera. Oro har, mendebaldeko eremu horretan bizi den biztanleriaren maila sozioekonomikoa ertainaren eta altuaren artean dago, hezkuntza maila altuko eremua da, eta konparatiboki zertxobait gaztetuagoa da Ibaetaren kasuan.

| | Antiguo-Ondarreta | |
|---|---|---|
| 1 | 14.265 bizt. (-%0,2) | 8º |
| 2 | 1.113 bizt. (%9,8) | 7º |
| 3 | %28,9 > 65 urte | 3º |
| 4 | %34 unib. | 3º |
| 5 | %2,8 | 4º |
| 6 | 5.404,6€/m² (-%0,27) | 2º |
| 7 | 34.329€ | 3º |

| | Aiete | |
|---|---|---|
| 1 | 14.800 bizt. (+%1,3) | 6º |
| 2 | 985 bizt. (%6,7) | 9º |
| 3 | %21,3 > 65 urte | 11º |
| 4 | %35 unib. | 2º |
| 5 | %2,6 | 3º |
| 6 | 5.310,5€/m² (+%10,3) | 4º |
| 7 | 35.406€ | 2º |

| | Ibaeta | |
|---|---|---|
| 1 | 10.061 bizt. (-%0,2) | 9º |
| 2 | 760 bizt. (%7,6) | 10º |
| 3 | %20,5 > 65 urte | 15º |
| 4 | %32 unib. | 4º |
| 5 | %3,5 | 9º |
| 6 | 4.722,1€/m² (+%2,3) | 6º |
| 7 | 31.300€ | 5º |

| | Igeldo | |
|---|---|---|
| 1 | 1.109 bizt. (+%3,8) | 16º |
| 2 | 101 bizt. (%9,1) | 16º |
| 3 | %21,3 > 65 urte | 12º |
| 4 | %24 unib. | 11º |
| 5 | %3,2 | 8º |
| 6 | z.g. | |
| 7 | 26.885€ | 10º |

**Miramon-Zorroaga.** Nahiz eta biztanleria-dimentsio txikia (2.500 biztanle baino gutxiago) eta lur-eremu zabala izan, azken urteotan demografiari dagokionez gehien hazi den auzoetako bat da. Hiriko *per capita* errenta handieneko eremua da, prestakuntza-maila handia du eta enplegu osoko tasa du. Era berean, etxebizitzen preziorik altuena du metro koadroko.

| | Miramon-Zorroaga | |
|---|---|---|
| 1 | 2.431 bizt. (-%0,7) | 15º |
| 2 | 168 bizt. (%6,9) | 15º |
| 3 | %21,7 > 65 urte | 9º |
| 4 | %31 unib. | 7º |
| 5 | %1,3 | 1º |
| 6 | 5.034,4€/m² (-%1,14) [83] | 5º |
| 7 | 48.112€ | 1º |

[83] 2023ko 1. hiruhilekoko datua.

**Ekialdea: Intxaurrondo, Altza, Martutene eta Mirakruz-Bidebieta.** Ekialdeko auzoetan, Donostiako biztanleriaren laurdena biltzen da, eta konparatiboki, etxebizitza-prezio baxuenak dituzte, biztanleria-hazkunde handiagoa, eta Intxaurrondon eta Altzan, biztanleria migratzailearen pisu handiagoa. Eremu horretan gainerako auzoetan baino hezkuntza-maila baxuagoa dago, langabeziaren intzidentzia handiagoa, eta, ondorioz, errenta-maila mugatuagoak.

| | Intxaurrondo | |
|---|---|---|
| 1 | 15.863 bizt. (+%1,1) | 5° |
| 2 | 1.794 bizt. (%11,3) | 5° |
| 3 | %21,3 > 65 urte | 13° |
| 4 | %19 unib. | 14° |
| 5 | %5,5 | 17° |
| 6 | 3.611,3€/$m^2$ (+%13,2) | 12° |
| 7 | 21.286€ | 14° |

| | Altza | |
|---|---|---|
| 1 | 20.484 bizt. (+%0,7) | 3° |
| 2 | 2.380 bizt. (%11,6) | 3° |
| 3 | %24,7 > 65 urte | 8° |
| 4 | %10 unib. | 17° |
| 5 | %4,7 | 12° |
| 6 | 2.742,7€/$m^2$ (+%4,2) | 14° |
| 7 | 18.563€ | 17° |

| | Martutene | |
|---|---|---|
| 1 | 2.727 bizt. (+%1,0) | 14° |
| 2 | 302 bizt. (%11,1) | 13° |
| 3 | %20,8 > 65 urte | 14° |
| 4 | %14 unib. | 16° |
| 5 | %5 | 15° |
| 6 | z.g. | |
| 7 | 20.482€ | 16° |

| | Mirakruz-Bidebieta | |
|---|---|---|
| 1 | 8.857 bizt. (-%0,1) | 10° |
| 2 | 1.001 bizt. (%11,3) | 8° |
| 3 | %25,2 > 65 urte | 7° |
| 4 | %17 unib. | 14° |
| 5 | %4,8 | 13° |
| 6 | 2.796,1€/$m^2$ (-%5,9) | 13° |
| 7 | 21.150€ | 15° |

**Loiola – Txomin.** Gazteen pisu konparatibo handiagoa du, eta errealitate horri maila ertainaren eta baxuaren arteko sozioekonomikoa eta langabezia handiagoa lotzen zaizkio.

| | Loiola-Txomin | |
|---|---|---|
| 1 | 6.287 bizt. (+%0,2) | 11° |
| 2 | 689 bizt. (%11) | 11° |
| 3 | %18,8 > 65 urte | 17° |
| 4 | %20 unib. | 12° |
| 5 | %5,3 | 16° |
| 6 | 3.883,0€/$m^2$ (+%6,1) | 9° |
| 7 | 21.508€ | 13° |

**Gainerako auzoak: Ategorrieta-Ulia, Añorga eta Zubieta,** biztanleria-dimentsio txikiagoko eremuak dira, non 2022tik 2023ra biztanle kopurua gorantz baitoa.

| | Ategorrieta – Ulia | |
|---|---|---|
| 1 | 4.062 bizt. (-%0,8) | 12° |
| 2 | 375 bizt. (%9,2) | 12° |
| 3 | %25,2 > 65 urte | 6° |
| 4 | %29 unib. | 8° |
| 5 | %3,1 | 6° |
| 6 | 3.845,6€/$m^2$ (-%14,3)[84] | 10° |
| 7 | 29.759€ | 6° |

| | Añorga | |
|---|---|---|
| 1 | 2.753 bizt. (+%4,5) | 13° |
| 2 | 189 bizt. (%6,9) | 14° |
| 3 | %21,4 > 65 urte | 10° |
| 4 | %24 unib. | 10° |
| 5 | %2,3 | 2° |
| 6 | 3.765,4€/$m^2$ (+%0,6) | 11° |
| 7 | 28.627€ | 8° |

| | Zubieta | |
|---|---|---|
| 1 | 314 bizt. (+%5,4) | 17° |
| 2 | 24 bizt. (%7,6) | 17° |
| 3 | %19,7 > 65 urte | 16° |
| 4 | %19 unib. | 13° |
| 5 | %2,9 | 5° |
| 6 | z.g. | |
| 7 | 26.838€ | 11° |

[84] 2023ko 3. hiruhilekoko datua.

## Auzoen sailkapena, adierazle demografiko eta sozioekonomikoen arabera: 7 adierazle

| 1.- Biztanleriaren zifra 2023 (kop.) | | |
|---|---|---|
| 1 | Amara Berri | 30.192 bizt. |
| 2 | Erdialdea | 22.264 bizt. |
| 3 | Altza | 20.484 bizt. |
| 4 | Gros | 17.943 bizt. |
| 5 | Intxaurrondo | 15.863 bizt. |
| 6 | Aiete | 14.800 bizt. |
| 7 | Egia | 14.650 bizt. |
| 8 | Antiguo-Ondarreta | 14.265 bizt. |
| 9 | Ibaeta | 10.061 bizt. |
| 10 | Mirakruz-Bidebieta | 8.857 bizt. |
| 11 | Loiola-Txomin | 6.287 bizt. |
| 12 | Ategorrieta-Ulia | 4.062 bizt. |
| 13 | Añorga | 2.753 bizt. |
| 14 | Martutene | 2.727 bizt. |
| 15 | Miramon-Zorroaga | 2.431 bizt. |
| 16 | Igeldo | 1.109 bizt. |
| 17 | Zubieta | 314 bizt. |

| 2.- Biztanleria migratzailea 2023 (kop.) | | |
|---|---|---|
| 1 | Amara Berri | 3.110 bizt. |
| 2 | Erdialdea | 2.816 bizt. |
| 3 | Altza | 2.380 bizt. |
| 4 | Gros | 2.051 bizt. |
| 5 | Intxaurrondo | 1.794 bizt. |
| 6 | Egia | 1.458 bizt. |
| 7 | Antiguo-Ondarreta | 1.113 bizt. |
| 8 | Mirakruz-Bidebieta | 1.001 bizt. |
| 9 | Aiete | 985 bizt. |
| 10 | Ibaeta | 760 bizt. |
| 11 | Loiola-Txomin | 689 bizt. |
| 12 | Ategorrieta-Ulia | 375 bizt. |
| 13 | Martutene | 302 bizt. |
| 14 | Añorga | 189 bizt. |
| 15 | Miramon-Zorroaga | 168 bizt. |
| 16 | Igeldo | 101 bizt. |
| 17 | Zubieta | 24 bizt. |

| 3.- Zahartze-tasa 2023 (>65 urtekoen %) | | |
|---|---|---|
| 1 | Gros | % 32,3 |
| 2 | Erdialdea | % 30,8 |
| 3 | Antiguo-Ondarreta | % 28,9 |
| 4 | Amara Berri | % 26,6 |
| 5 | Egia | % 25,7 |
| 6 | Ategorrieta-Ulia | % 25,2 |
| 7 | Mirakruz-Bidebieta | % 25,2 |
| 8 | Altza | % 24,7 |
| 9 | Miramon-Zorroaga | % 21,7 |
| 10 | Añorga | % 21,4 |
| 11 | Aiete | % 21,3 |
| 12 | Igeldo | % 21,3 |
| 13 | Intxaurrondo | % 21,3 |
| 14 | Martutene | % 20,8 |
| 15 | Ibaeta | % 20,5 |
| 16 | Zubieta | % 19,7 |
| 17 | Loiola-Txomin | % 18,8 |

| 4.- Unibertsitate-ikasketak (unibertsitate-ikasketen %) | | |
|---|---|---|
| 1 | Erdialdea | % 36 |
| 2 | Aiete | % 35 |
| 3 | Antiguo-Ondarreta | % 34 |
| 4 | Ibaeta | % 32 |
| 5 | Gros | % 32 |
| 6 | Amara Berri | % 32 |
| 7 | Miramon-Zorroaga | % 31 |
| 8 | Ategorrieta-Ulia | % 29 |
| 9 | Egia | % 25 |
| 10 | Añorga | % 24 |
| 11 | Igeldo | % 24 |
| 12 | Loiola-Txomin | % 20 |
| 13 | Zubieta | % 19 |
| 14 | Intxaurrondo | % 19 |
| 15 | Mirakruz-Bidebieta | % 17 |
| 16 | Martutene | % 14 |
| 17 | Altza | % 10 |

| 5.- Biztanleria langabea (biztanleria osoarekiko) | | |
|---|---|---|
| 1 | Miramon-Zorroaga | % 1,3 |
| 2 | Añorga | % 2,3 |
| 3 | Aiete | % 2,6 |
| 4 | Antiguo-Ondarreta | % 2,8 |
| 5 | Zubieta | % 2,9 |
| 6 | Ategorrieta-Ulia | % 3,1 |
| 7 | Erdialdea | % 3,2 |
| 8 | Igeldo | % 3,2 |
| 9 | Amara Berri | % 3,3 |
| 10 | Ibaeta | % 3,5 |
| 11 | Gros | % 3,6 |
| 12 | Egia | % 3,8 |
| 13 | Altza | % 4,7 |
| 14 | Mirakruz-Bidebieta | % 4,8 |
| 15 | Martutene | % 5,0 |
| 16 | Loiola-Txomin | % 5,3 |
| 17 | Intxaurrondo | % 5,5 |

| 6.- Etxebizitzen salerosketaren batez besteko prezioa $m^2$ bakoitzeko (€/$m^2$) | | |
|---|---|---|
| 1 | Erdialdea | 6.131,4€/$m^2$ |
| 2 | Antiguo-Ondarreta | 5.404,6€/$m^2$ |
| 3 | Gros | 5.399,5€/$m^2$ |
| 4 | Aiete | 5.310,5€/$m^2$ |
| 5 | Miramon-Zorroaga | 5.034,4€/$m^2$ |
| 6 | Ibaeta | 4.722,1€/$m^2$ |
| 7 | Amara Berri | 4.695,5€/$m^2$ |
| 8 | Egia | 4.100,5€/$m^2$ |
| 9 | Loiola-Txomin | 3.883,0€/$m^2$ |
| 10 | Ategorrieta-Ulia | 3.845,6€/$m^2$ |
| 11 | Añorga | 3.765,4€/$m^2$ |
| 12 | Intxaurrondo | 3.611,3€/$m^2$ |
| 13 | Mirakruz-Bidebieta | 2.796,1€/$m^2$ |
| 14 | Altza | 2.742,7€/$m^2$ |
| 15 | Zubieta | z.g. |
| 16 | Martutene | z.g. |
| 17 | Igeldo | z.g. |

### 7.- Errenta pertsonalaren maila (€)

| | | |
|---|---|---|
| 1 | Miramon-Zorroaga | 48.112€ |
| 2 | Aiete | 35.406€ |
| 3 | Antiguo-Ondarreta | 34.329€ |
| 4 | Erdialdea | 33.153€ |
| 5 | Ibaeta | 31.300€ |
| 6 | Ategorrieta-Ulia | 29.759€ |
| 7 | Gros | 29.301€ |
| 8 | Añorga | 28.627€ |
| 9 | Amara Berri | 27.234€ |
| 10 | Igeldo | 26.885€ |
| 11 | Zubieta | 26.838€ |
| 12 | Egia | 23.548€ |
| 13 | Loiola-Txomin | 21.508€ |
| 14 | Intxaurrondo | 21.286€ |
| 15 | Mirakruz-Bidebieta | 21.150€ |
| 16 | Martutene | 20.482€ |
| 17 | Altza | 18.563€ |



## 4.2. Jarduera ekonomikoen banaketa auzoetan

### 4.2.1 Hirugarren sektoreko ehun ekonomikoa bizitegi-lurzoruan

2023an, hiriko enpresa-sarearen erdia inguru (18.085 establezimendu) hiru auzotan soilik biltzen da: Erdialde-Alde Zaharra (4.187), Amara Berri (2.215) eta Gros (2.188). Enpresa-parke horrek hiriko enpleguaren herena hartzen du.

Mendebaldean (Ibaeta, Antiguo-Ondarreta eta Igeldo), berriz, 2.897 establezimendu daude (guztizkoaren % 16), eta enpleguaren % 22,5 hartzen dute.

Ekialdeko barrutiak (Altza, Mirakruz-Bidebieta, Intxaurrondo eta Martutene), 2.862 establezimenduk osatzen duten enpresa-parkea du, eta mendebaldekoaren antzeko zifrak ditu, baina hiriko enpleguaren % 11,5 baino ez.

#### Donostiako Erdialdea-Alde Zaharra: hiriko ekonomiaren eragilea

Erdialdeak eta Alde Zaharrak 4.187 establezimendu dituzte 2023an (guztizkoaren % 23,2), eta horiena da hiriko enpleguaren % 18,4. Tipologiaren arabera, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalen fatxadarekin batera, EZIen presentzia nabarmentzen da (1.422 establezimendu), bereziki, zerbitzu profesional tradizionalak (EZI-P) eta pertsonei zuzendutako EZIak (549 eta 545 establezimendu, hurrenez hurren).

Zalantzarik gabe, hiriaren erdigunea azpimarragarria da duen merkataritza (41 saltoki 1.000 biztanleko) eta ostalaritza-dentsitateagatik (24,6 establezimendu 1.000 biztanleko). Hirugarren sektoreko erreferentea da bai donostiarrentzat bai Gipuzkoa barruko eta kanpoko bisitarientzat.

Horrela, merkataritzaren eta ostalaritzaren eragile horrek 914 saltoki (hiriko merkataritza-parkearen % 38 inguru) eta 519 ostalaritza-establezimendu (Donostiako ostalaritza-parkearen % 35,5) ditu 2023an.

Erdiguneko espazio horrek hirugarren sektoreko, aisialdiko, kulturako eta merkataritzako eskaintza du, eta tokiko eta nazioarteko proposamenak, bi merkataritza-ekipamendu eta erreferentziako hornidura-merkatu bateratzen ditu, non hiriko eta lurraldeko tokiko produktu ugari eskaintzen baitira: Bretxa merkatua eta San Martin merkatua –biak eraldatzen ari dira gaur egun–.

#### Gros, hiri-ekonomiako gune garrantzitsua eta osagarria

Gros auzoak, bestalde, hiriko enpresa-parkearen % 12 hartzen du, eta EZIen 755 establezimendutan (pertsonei zuzendutako 312 EZI eta 224 EZI-P establezimendu), 421 saltokitan eta 227 ostalaritza-establezimendutan dago banatuta.

Erdialdearen ondoren, Grosek merkataritza-dentsitate oso esanguratsua (23 saltoki 1.000 biztanleko) eta ostalaritza-dentsitate handia (13 ostalaritza-establezimendu 1.000 biztanleko) ditu. Merkataritza, kultura, aisia, ostalaritza eta kirol-erreferentziako gunea da, bai egoiliarrentzat, bai bisitarientzat.

#### Mendebaldea, EZIen protagonismo handiagoa eta maila finkatuko merkataritza eta ostalaritza-dentsitatea

Hiriaren mendebaldean, konkretuki, Antiguo-Ondarreta auzoetan 2.796 establezimendu daude guztira. Enpresa-parke horretan, nabarmentzekoa da EZIen presentzia, establezimenduen % 40 inguru EZIenak baitira guztizkoarekiko. Establezimendu horiek, neurri handi batean, pertsonentzako zerbitzuei eta teknologia berrietan oinarritutako zerbitzuei (EZI-T) daude lotuta; zehazki, 327 eta 323 establezimendu daude, hurrenez hurren, Igara eta Zuatzu industrialdeetan eta Antiguoko unibertsitate-eremuetan (EHU/UPV eta Nafarroako Unibertsitatea).



Bestalde, eremu horretako merkataritza-parkeak 241 establezimendu ditu guztira, eta Antiguo-Ondarretako 1.000 biztanleko 15 saltoki inguruko merkataritza-dentsitatea du. Hiriko batez bestekoa (12,8) baino handiagoa da hori. Ostalaritza-dentsitatea (7 establezimendu 1.000 biztanleko) hiri osoarena bezalakoa da. 167 ostalaritza-establezimendu daude.

**Amara Berri eta Egia, hirugarren sektoreko zuzkidura ertaina duten bizitegi-hiriguneak**

Amara Berrik 2.215 establezimendu ditu guztira (836 EZI –erdia baino gehiago osasun-zerbitzuei eta profesional tradizionalei lotuak–, 281 saltoki eta 142 ostalaritza-establezimendu), eta enpleguari dagokionez % 8tik beherako pisua du. Mendebaldeko eremuaren antzera, erdigunekoa eta erakarpen handikoa ez den auzo baten merkataritza-dentsitatea (9 saltoki 1.000 biztanleko) eta ostalaritza-dentsitatea (5 establezimendu 1.000 biztanleko) ditu, baina bertako egoiliarrentzat hirugarren sektoreko dinamismoa du.

Egia auzoak, bere aldetik, 1.181 establezimenduko enpresa-parkea du, eta hiriko enpleguaren % 5 baino ez du hartzen. Era berean, hiri-ekonomia baten merkataritza-dentsitatea (7 saltoki 1.000 biztanleko) eta ostalaritza-dentsitatea (5 establezimendu 1.000 biztanleko) ditu, nahiz eta zertxobait beheranzkoa izan, finkatua.

**Ekialdea: biztanleria-hazkundean dauden baina hirugarren sektorearen dentsitate mugatuak dituzten eremuak**

Altzak (980 enpresa-establezimendu) eta Intxaurrondok (970 establezimendu) hiriko enpleguaren % 8 baino ez dute hartzen. Enpresa sare horretan, honelakoak dira merkataritza eta ostalaritza-dentsitateak: Intxaurrondoren kasuan, 8 saltoki eta 4 ostalaritza-establezimendu daude 1.000 biztanleko, eta Altzan, berriz, 6 eta 3, –mugatuagoak dira konparatiboki eta murrizten ari dira apur bat–; hori guztia hazkunde demografikoko agertoki batean.

Bestalde, Mirakruz-Bidebietak eta Martutenek enpresa-parke askoz txikiagoak dituzte (72 eta 440 establezimendu, hurrenez hurren), Donostiako establezimenduen % 5 eta hiriko guztizko enpleguaren % 4 baino zertxobait gutxiago.

**Aiete, Igeldo, Miramon-Zorroaga, ia hirugarren sektoreko hiri-bilberik ez duten bizitegi-izaerako auzoak**

Azkenik, hiru eremu horiek merkataritza-dentsitate baxuak dituzte (5 saltoki 1.000 biztanleko Miramonen, eta 3,6 eta 2 Igeldon eta Aieten), eta hori hiri-eremu sakabanatuak izatearekin lotzen da. Familia bakarreko etxebizitza gehiago dituzte, eta, beraz, merkataritzako eta hirugarren sektoreko zuzkidura gutxiago.



**Enpresa-establezimenduen eta enpleguaren banaketa auzoen arabera 2023**
**(Enpleguaren pisuaren % handienetik txikienera ordenatua))**




| Auzoa | Establezi-menduen kop | Lanpostuen % |
|---|---|---|
| 1.- Erdialdea | 4.187 | % 18,4 |
| 2.- Ibaeta | 1.447 | % 15,6 |
| 3.- Miramon-Zorroaga | 542 | % 15,3 |
| 4.- Amara Berri | 2.215 | % 7,6 |
| 5.- Gros | 2.188 | % 7,0 |
| 6.- Antiguo-Ondarreta | 1.349 | % 6,6 |
| 7.- Añorga | 601 | % 5,9 |
| 8.- Egia | 1.181 | % 5,2 |
| 9.- Intxaurrondo | 970 | % 5,1 |
| 10.- Aiete | 798 | % 2,8 |
| 11.- Altza | 980 | % 2,6 |
| 12.- Martutene | 440 | % 2,3 |
| 13.- Ategorrieta-Ulia | 234 | % 1,6 |
| 14.- Mirakruz-Bidebieta | 472 | % 1,5 |
| 15.- Loiola-Txomin | 310 | % 1,2 |
| 16.- Zubieta | 68 | % 1,0 |
| 17.- Igeldo | 101 | % 0,3 |
| **GUZTIRA** | **18.085** | **% 100** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a



**EZIen (enpresak eta pertsonak) enpresen eta enpleguaren banaketa auzoen arabera 2023**
**(Enpleguaren pisuaren % handienetik txikienera ordenatua)**




| Auzoa | Establezi-menduen kop | Lanpostuen % |
|---|---|---|
| 1.- Miramon-Zorroaga | 318 | % 34,4 |
| 2.- Ibaeta | 606 | % 15,5 |
| 3.- Erdialdea | 1.422 | % 9,6 |
| 4.- Añorga | 267 | % 6,5 |
| 5.- Antiguo-Ondarreta | 505 | % 6,5 |
| 6.- Amara Berri | 836 | % 5,6 |
| 7.- Gros | 755 | % 5,5 |
| 8.- Egia | 477 | % 4,3 |
| 9.- Aiete | 386 | % 4,0 |
| 10.- Intxaurrondo | 249 | % 1,9 |
| 11.- Ategorrieta | 103 | % 1,8 |
| 12.- Mirakruz-Bidebieta | 146 | % 1,5 |
| 13.- Altza | 143 | % 1,2 |
| 14.- Loiola-Txomin | 91 | % 0,9 |
| 15.- Martutene | 66 | % 0,7 |
| 16.- Igeldo | 26 | % 0,2 |
| 17.- Zubieta | 6 | % 0,0 |
| **GUZTIRA** | **18.085** | **%100** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a



**Txikizkako saltokien banaketa eta merkataritza-dentsitatea auzoen arabera 2023 (merkataritza-dentsitate handienetik txikienera ordenatua[85])**




- 40 saltoki baina gehiago x 1.000 bizt.
- 20 eta 39 saltoki artean x 1.000 bizt.
- 10 eta 19 saltoki artean x 1.000 bizt.
- 5 eta 9 saltoki artean x 1.000 bizt.
- 5 saltoki baina gutxiago x 1.000 bizt.

| Auzoa | Txikizkako saltokien kop. | Merkataritza-dentsitatea |
|---|---|---|
| 1.- Centro | 914 | 41,0 |
| 2.- Gros | 421 | 23,4 |
| 3.- Zubieta | 5 | 15,9 |
| 4.- Antiguo-Ondarreta | 179 | 14,6 |
| 5.- Martutene | 29 | 10,6 |
| 6.- Añorga | 28 | 10,2 |
| 7.- Amara Berri | 281 | 9,3 |
| 8.- Intxaurrondo | 134 | 8,4 |
| 9.- Egia | 110 | 7,5 |
| 10.- Ibaeta | 62 | 6,2 |
| 11.- Alza | 124 | 6,1 |
| 12.- Miracruz-Bidebieta | 53 | 6,0 |
| 13.- Miramon-Zorroaga | 12 | 4,9 |
| 14.- Igeldo | 4 | 3,6 |
| 15.- Loiola-Txomin | 21 | 3,3 |
| 16.- Ategorrieta-Ulia | 9 | 2,2 |
| 17.- Aiete | 32 | 2,2 |
| **GUZTIRA** | **2.418** | **12,8** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a

[85] Merkataritza-establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko



Argazkia: Donostia San Sebastián Turismoa

**Ostalaritzaren banaketa eta ostalaritza-dentsitatea auzoen arabera 2023**
**(ostalaritza-dentsitate handienetik txikienera ordenatua [86])**




- 20 establezimendu baina gehiago x 1.000 bizt.
- 10 eta 19 establezimendu artean x 1.000 bizt.
- 5 eta 9 establezimendi artean x 1.000 bizt.
- 5 establezimendu baina gutxiago x 1.000 bizt.

| Auzoa | Establezi-menduen kop. | Ostalaritza dentsitatea |
|---|---|---|
| 1.- Erdialdea | 519 | 24,6 |
| 2.- Igeldo | 24 | 23,0 |
| 3.- Gros | 227 | 13,1 |
| 4.- Miramon-Zorroaga | 24 | 10,1 |
| 5.- Antiguo-Ondarreta | 100 | 7,3 |
| 6.- Martutene | 19 | 7,3 |
| 7.- Ibaeta | 67 | 6,8 |
| 8.- Añorga | 14 | 5,5 |
| 9.- Egia | 74 | 5,2 |
| 10.- Loiola-Txomin | 31 | 5,1 |
| 11.- Amara Berri | 142 | 4,8 |
| 12.- Ategorrieta-Ulia | 17 | 4,3 |
| 13.- Intxaurrondo | 64 | 4,2 |
| 14.- Mirakruz-Bidebieta | 32 | 3,7 |
| 15.- Altza | 68 | 3,4 |
| 16.- Aiete | 29 | 2,0 |
| 17.- Zubieta | 8 | 30,2 |
| **GUZTIRA** | **1.460** | **7,7** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a

[85] Ostalaritza-establezimenduen kopurua 1.000 biztanleko


Argazkia: Donostia San Sebastián Turismoa

### 4.2.2 Jarduera ekonomikoak garatzeko beste hiri-espazio batzuk: industrialdeak

Donostiak zientziaren, berrikuntzaren eta EZIen espazio gisa duen bokazioa finkatuz doa, eta ekoizpen-eredua eta espezializazio-maila aldatzen ari da lurralde- eta eskualde-mailan.

Horrela, hiriko hiri-bilbeko EZIen ehunaz gain, hiriak espezializazio funtzionaleko 9 eremu ditu, eremu suburbanoetan eta periferikoagoetan banatuta.

023an, 1.807 establezimenduk egiten dute lan hiriko 9 jarduera-industrialdeetan, eta gune horiek ezinbestekoak dira hiriaren enpresa-profila eta jarduera ekonomikoa ulertzeko.

Zifretan lau poligono nabarmentzen dira; lehenik eta behin, Igarako eremua dago (guztira, 713 establezimendu daude 265.286 $m^2$-ko azaleran banatuta). Zuatzurekin batera (370 establezimendu 137.923 $m^2$-tan), industrialdeetan kokatutako enpresa-establezimenduen % 60 inguru biltzen du; ondoren, 27. industrialdea (331 establezimendu 200.831 $m^2$-ko hedaduran) eta Miramongo Parke Teknologikoa (191 establezimendu 573.771 $m^2$-tan) daude.

Industrialde horietako enpresa-parkea handitzen ari da, eta eremu horietan jarduera ekonomikoak kontzentratzeko joera dago, hiriko beste puntu batzuetatik eratorritako jarduerak hartuta[87], baita kasu batzuetan sortu berri diren ekimenak hartuta ere.

Horrela, 9 industrialde horietan gertatutako enpresa-desplazamenduen esparruan, bi heren udal-mugarteko beste zona batzuetatik etorritako enpresa-ekimenenak dira; fenomeno hori bereziki nabarmena da Zubietan (% 80), Errekalden (% 88), 27. industrialdean (% 70) edo Eskuzaitzetan (%70). Industrialde horietan, kokapena dela eta, neurri handi batean logistikara, handizkako merkataritzara edo industriara bideratutako jarduerak burutzen dituzte.

Aitzitik, Miramongo edo Zuatzuko parke teknologikoetan —enpresetara bideratutako ezagutza-zerbitzu intentsiboetako enpresen pisu handia dute—, enpresa-parkea modu "endogenoan" ari da hazten, batez ere enpresa sortu berrien harreragatik.

**Jarduera-industrialdeen banaketa, establezimenduak eta bilakaera 2022-2023**
**(Establezimendu kopuru handienetik txikienera ordenatua)**




| Industrialdea | Establezimenduen kop. | 2022-2023 bilakaera |
|---|---|---|
| 1.- Igara | 713 | % 6,4 |
| 2.- Zuatzu | 370 | % 13,2 |
| 3.- 27. industrialdea | 331 | % 25,4 |
| 4.- Miramongo Parke Teknologikoa | 191 | % 20,9 |
| 5.- Belartza | 100 | % 23,5 |
| 6.- Errekalde | 43 | % 53,6 |
| 7.- Zubieta | 41 | % 41,4 |
| 8.- Papin | 11 | % 22,2 |
| 9.- Eskuzaitzeta | 7 | |
| TOTAL | 18.085 | %15,4 |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a

[87] Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak jada identifikatzen zuen jarduera ekonomikoko eremu batzuetan erabilerak birkokatu beharko liratekeela, eta lurzoru horietarako berroneratzen lagunduko luketen bizitegi-garapenak kontuan hartu beharko liratekeela, hala nola Larratxon edo "Infernua" izeneko eremuan.

**Ibaeta —Igara eta Zuatzu— eta Miramon: hiriko ezagutza- eta berrikuntza-guneak**

Mendebaldea eta, bereziki, Ibaeta eta Miramon jarduera ekonomikorako guneak dira nagusiki, eta sortutako enplegu bakoitzeko 0,4 egoiliarreko ratioa dute.

Ibaetako eremuak, 1.500 enpresa ingururekin eta hiriko enpleguaren % 16 baino gehixeagorekin, unibertsitate-profila du (EHU/UPVko eta Nafarroako Unibertsitateko campusa); eta enpresetara bideratutako zerbitzu ugari biltzen ditu (EZI-Enpresak), Zuatzun eta Igaran kokatutako jarduera ugariei esker.

Ildo horretan, aipatzekoa da Igara eta Zuatzu industrialdeetan biltzen direla jarduera ekonomikorako azaleran dauden enpresen % 60; enpresa horietako asko ezagutza-zerbitzu intentsiboetara (EZI-Enpresak) bideratuta daude.

Hala, Igara industrialdeko enpresen % 37k baino gehiagok enpresetara bideratutako ezagutza-zerbitzu intentsiboak eskaintzen dituzte, eta zerbitzu teknologikoek —EZI-T— pisu handia dute (% 68, EZI-Enpresak ehunarekiko). Era berean, Zuatzun enpresentzako ezagutza-zerbitzu intentsiboak dira nagusi (% 41). Horrez gain, EZI teknologikoek ere protagonismoa dute, eremu horretako parke osoaren % 28 baino zertxobait gehiago baitira.



**Igarako eta Zuatzuko establezimenduen banaketa, jarduera-sektoreen arabera**

**IGARA**
**713 establezimendu**

| Jarduera-sektorea | Establezimenduen kop. | %pisu erlatiboa |
|---|---|---|
| **EZI Enpresak** | **266** | **%37,4** |
| EZI-T | 181 | %25,4 |
| EZI-S | 44 | %6,2 |
| EZI-P | 41 | %5,8 |
| **Zerbitzu operatiboak** | **357** | **%50** |
| Handizkako merkataritza | 82 | %11,5 |
| Txikizkako merkataritza | 60 | %8,4 |
| Ostalaritza | 19 | %2,7 |
| Beste zerbitzu operatibo batzuk | 196 | %27,4 |
| **Industria** | **39** | **%5,5** |
| **Eraikuntza** | **33** | **%4,6** |
| **EZI Pertsonak (SEPES)** | **14** | **%2** |
| Hezkuntza | 12 | %1,7 |
| Osasuna | 2 | %0,3 |
| **Lehen sektorea** | **4** | **%0,6** |

**ZUATZU**
**370 establezimendu**

| Jarduera-sektorea | Establezimenduen kop. | %pisu erlatiboa |
|---|---|---|
| **EZI Enpresak** | **151** | **%40,9** |
| EZI-T | 104 | %28,2 |
| EZI-S | 30 | %8,1 |
| EZI-P | 17 | %4,6 |
| **Zerbitzu operatiboak** | **172** | **%46,4** |
| Handizkako merkataritza | 20 | %5,4 |
| Txikizkako merkataritza | 17 | %4,6 |
| Ostalaritza | 2 | %0,5 |
| Beste zerbitzu operatibo batzuk | 133 | %35,9 |
| **SEIC Personas (SEPES)** | **23** | **%6,2** |
| Educación | 12 | %3,2 |
| Sanidad | 11 | %3,0 |
| **Industria** | **17** | **%4,6** |
| **Eraikuntza** | **7** | **%1,9** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a

Miramongo Parke Teknologikoa hirugarren sektorekoa da, aurreko bi industrialdeak bezalaxe, eta EZI-Enpresak zerbitzuen kontzentrazioa % 58tik gorakoa da bertan; horiek batez ere zerbitzu teknologikoetara daude bideratuta (EZI-T zerbitzuak industrialdeko ehunaren % 56 dira), eta horiek dira, hain zuzen ere, hiriko erreferentziazko ezagutza eta berrikuntza-gunea.

**Miramongo Parke Teknologikoko establezimenduen banaketa, jarduera-sektoreen arabera**

**MIRAMONGO PARKE TEKNOLOGIKOA**
**191 establezimendu**

| Jarduera-sektorea | Establezimenduen kop. | %pisu erlatiboa |
|---|---|---|
| **EZI Enpresak** | **111** | **%58,2** |
| EZI-T | 107 | %56,0 |
| EZI-S | 3 | %1,6 |
| EZI-P | 1 | %0,6 |
| **Zerbitzu operatiboak** | **56** | **%29,3** |
| Handizkako merkataritza | 11 | %5,8 |
| Ostalaritza | 4 | %2,1 |
| Txikizkako merkataritza | 6 | %3,1 |
| Beste zerbitzu operatibo batzuk | 35 | %18,3 |
| **Manufaktura-industria** | **18** | **%9,4** |
| **EZI Pertsonak (SEPES)** | **6** | **%3,1** |
| Hezkuntza | 4 | %2,1 |
| Osasuna | 2 | %1,0 |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a



**Ekialdeko poligonoak: industriaren, garraioaren eta handizkako merkataritzaren presentzia handiagoa.**

**27. industrialdea eta Papin, hiriko erreferentzia industrialak**

27. industrialdea, zeina hiriaren ekialdean baitago, hiriko erreferentziazko espazio industrialtzat hartzen da. 2023an, industrialde horretan industria mekanikoko eta metalikoko 95 establezimendu daude, baita eraikuntzaren arloko enpresak ere.

Handizkako merkataritza-enpresak, aldi berean, industrialde horretako jardueraren % 23 inguru dira, industriaren antzera, zeinaren parkea ere 75 establezimenduk osatzen baitute.

Azpimarratzekoa da enpresetara bideratuta eta teknologiarekin (EZI-T) lotuta dauden ezagutza-enpresa intentsiboen gune bat eratu dela (nagusiki ingeniaritzak dira), nahiz eta, gaur egun, enpresa guztien % 8 baino ez diren.

Bestalde, Papin ere hiriaren ekialdean dago, eta izaera industrial nabarmena du (establezimendu guztien % 54); dena den, ez da oso handia hiriko beste industrialde batzuen aldean (11 establezimendu baino ez, 33.068 m$^2$-ko azaleran).

## 27. industrialdeko eta Papingo establezimenduen banaketa, jarduera-sektoreen arabera

### 27. INDUSTRIALDEA
**331 establezimendu**

| Jarduera-sektorea | Establezi-menduen kop. | %pisu erlatiboa |
|---|---|---|
| **Zerbitzu operatiboak** | **196** | **%59,2** |
| Handizkako merkataritza | 75 | %22,7 |
| Txikizkako merkataritza | 45 | %13,6 |
| Ostalaritza | 10 | %3,0 |
| Beste zerbitzu operatibo batzuk | 66 | %19,9 |
| **Industria** | **75** | **%22,7** |
| **EZI Enpresak** | **31** | **%9,4** |
| EZI-T | 28 | %8,5 |
| EZI-P | 3 | %0,9 |
| **Eraikuntza** | **20** | **%6,0** |
| **EZI Pertsonak (SEPES)** | **5** | **%1,5** |
| Hezkuntza | 5 | %1,5 |
| **Lehen sektorea** | **4** | **%1,2** |



### PAPIN
**11 establezimendu**

| Jarduera-sektorea | Establezi-menduen kop. | %pisu erlatiboa |
|---|---|---|
| **Zerbitzu operatiboak** | **5** | **%45,5** |
| Handizkako merkataritza | 2 | %5,8 |
| Beste zerbitzu operatibo batzuk | 3 | %18,3 |
| **Industria** | **6** | **%54,5** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a

**Belartza, erabileren nahasketa handiagoko espazioa**

Belartzako industrialdeak 373.624 m$^2$-ko azalera eta ehun establezimendu inguru ditu. Industrialde hori erabileren nahasketaren adibidea da; hain zuzen ere, hiru zerbitzu-jardueretatik bat enpresei zuzenduta dago edo logistikaren, banaketaren eta garraioaren arlokoa da. .

Eremu horrek, gainera, handizkako merkataritza-jardueraren presentzia aipagarria du (% 28), eta % 47raino iristen da merkataritza-jarduera osoa kontuan hartzen bada (txikizkako eta handizkako merkataritza).

## BELARTZA
## 100 establezimendu

| Jarduera-sektorea | Establezimenduen kop. | %pisu erlatiboa |
|---|---|---|
| **Zerbitzu operatiboak** | **78** | **%78,0** |
| Handizkako merkataritza | 28 | %28,0 |
| Txikizkako merkataritza | 19 | %19,0 |
| Ostalaritza | 2 | %2,0 |
| Beste zerbitzu operatibo batzuk | 29 | %29,0 |
| **EZI Enpresak** | **13** | **%13,0** |
| EZI-P | 7 | %7,0 |
| EZI-T | 5 | %5,0 |
| EZI-S | 1 | %1,0 |
| **Industria** | **6** | **%6,0** |
| **Eraikuntza** | **2** | **%2,0** |
| **EZI Pertsonak (SEPES)** | **1** | **%1,0** |
| Pertsonak | 1 | %1,0 |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a

**Eskuzaitzeta, I+Gko industriaren gune berria**

Industrialde sortu berria da, eta estrategikotzat jotzen da industria-eremuan. Hainbat jarduera ditu; esaterako, Mubil Hub (GFAren[88] mugikortasun adimendun eta jasangarrirako zentroa), OTIS Mobility edo Naturklima (GFAren klima-aldaketaren fundazioa). Aipagarriak dira Zardoya Otis, Supresu eta Gipuzkoako Farmazi Banatzailea ere.

## ESKUZAITZETA
## 7 establezimendu

| Jarduera-sektorea | Establezimenduen kop. | %pisu erlatiboa |
|---|---|---|
| **Industria** | **5** | **%71,4** |
| **EZI Enpresak** | **1** | **%14,3** |
| EZI-T | 1 | %14,3 |
| **Zerbitzu operatiboak** | **1** | **%14,3** |
| Handizkako merkataritza | 1 | %14,3 |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a

[88] Gipuzkoako Foru Aldundia



**Errekalde eta Zubieta, handizkako merkataritzaren eta logistikaren protagonismoa**

Jarduera-industrialdeen kokalekuak, horiek beste hiri-eremu batzuekin integratuta edo lotuta egoteak, eta bide-korridoreetatik gertu egoteak baldintzatzen dute, hein handi batean, azkenean eskuratzen duten funtzionaltasuna. Esate baterako, Zubieta (248.904 $m^2$) eta Errekalde (61.902 m2) industrialdeetan, handizkako merkataritzak eta banaketa eta logistika enpresek-protagonismo handia dute: % 65 eta % 55, hurrenez hurren.

## ERREKALDE
## 43 establezimendu

| Jarduera-sektorea | Establezi-menduen kop. | %pisu erlatiboa |
|---|---|---|
| **Zerbitzu operatiboak** | **34** | **%79,1** |
| Txikizkako merkataritza | 10 | %23,2 |
| Handizkako merkataritza | 6 | %14,0 |
| Beste zerbitzu operatibo batzuk | 18 | %41,9 |
| **EZI Enpresak** | **6** | **%13,9** |
| EZI-T | 5 | %11,6 |
| EZI-P | 1 | %2,3 |
| **Manufaktura-industria** | **3** | **%7,0** |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a

## ZUBIETA
## 41 establezimendu

| Jarduera-sektorea | Establezi-menduen kop. | %pisu erlatiboa |
|---|---|---|
| **Zerbitzu operatiboak** | **39** | **%95,2** |
| Handizkako merkataritza | 16 | %39,0 |
| Txikizkako merkataritza | 7 | %17,2 |
| Ostalaritza | 5 | %12,2 |
| Beste zerbitzu operatibo batzuk | 11 | %26,8 |
| **Manufaktura-industria** | **1** | **%2,4** |
| **EZI Pertsonak (SEPES)** | **1** | **%2,4** |
| Hezkuntza | 1 | %2,4 |

Iturria: Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (DIRAE). Eustat. 2023ko urtarrilaren 1a



